

EGINBIDEA: Azkue auzoko Azpiestazio Elektrikoaren Plan Bereziaren dokumentu hau Udalbatzarrak, 2022ko irailaren 28an egindako bilkuran, BEHIN BETIKO ONARTU zuela jasota uzteko. Elgoibarren, UDALEKO IDAZKARIA

DILIGENCIA: para hacer constar que este documento de Plan Especial de la Subestación Eléctrica en el barrio Azkue fue APROBADO DEFINITIVAMENTE por el Pleno, en sesión celebrada el 28 de septiembre de 2022. En Elgoibar, EL SECRETARIO DEL AYUNTAMIENTO



KREAN, S.COOP.



ELGOIBARKO AZPIESTAZIOA

Plan Berezia

Sustatzailea

I-DE Redes Eléctricas Inteligentes (Grupo Iberdrola)

Fasea

behin betiko onespina

Data

2022eko uztaila

Talde egilea

Marco Segurola, geografo hirigilea

Ane Miren Martínez, arkitektoa

aurkibide orokorra

- A AGIRIA. MEMORIA
- B AGIRIA. HIRIGINTZAKO ARAUAK
- C AGIRIA. EGIKARITZEAREN ANTOLAMENDUKO ETA KUDEAKETAKO GIDALERROAK
- D AGIRIA. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERKETA
- E AGIRIA. LABURPEN EXEKUTIBOA
- F AGIRIA. PLANOAK

OHARRA: Plan Bereziaren jatorrizko dokumentua gaztelaniaz idatzita dago. Euskarazko bertsioa itzulpena da. Desadostasunik edo kontraesanik egonez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

NOTA: El documento original del Plan Especial está redactado en castellano. La versión en euskera es una traducción. En caso de discrepancia o contradicción, prevalecerá la versión en castellano.



ELGOIBARKO AZPIESTAZIOAREN

Plan Berezia

aurkibidea

1.	AURREKARIAK	1
2.	PLAN BEREZIAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA	1
2.1.	Plan Bereziaren irismena eta xedea.....	1
2.2.	Erabilitako figuraren justifikazioa.....	1
2.3.	Plana izapidetzea eta dokumentu hau justifikatzea.....	2
3.	EREMUAREN DESKRIBAPENA ETA EZAUGARRIAK	4
3.1.	Eremuaren kokalekua eta mugapena.....	4
3.2.	Ezaugarri fisikoak.....	4
3.3.	Katastro-egoera.....	5
3.4.	Argazki-erreportajea.....	6
4.	HIRIGINTZA-EGOERA	8
5.	INGURUMEN- ETA SEKTORE-BALDINTZATZAILE NAGUSIAK	10
5.1.	Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.....	10
5.2.	Errepideak.....	11
5.3.	Zortasun aeronautikoak.....	11
5.4.	Afektazio akustikoak.....	11
6.	PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN EZAUGARRIAK	12
6.1.	Plan Bereziaren irizpideak eta helburuak.....	12
6.2.	Aztertu diren aukerak.....	12
6.3.	Proposatutako antolamenduaren deskribapena.....	13
6.4.	Indarrean dagoen araudia betetzen dela egiaztatzeko justifikazioa.....	15
7.	INGURUMEN-JASANGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENA	16
7.1.	Ingurumen-txosten Estrategikoaren zehaztapenak txertatzea.....	16
7.2.	Ingurumenean ondorio negatiboak murrizteko neurriak eta Planaren ingurumen-jarraipena (Ingurumen-ebaluazio Estrategikoa).....	20
7.3.	Kontuan izan beharreko beste alderdi batzuk.....	21
8.	GIZARTE-JASANGARRITASUNA	23
8.1.	Inpaktua, generoari dagokionez.....	23
8.2.	Euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez duen inpaktuaren ebaluazioa.....	24
8.3.	Herritarrek parte hartzeko programa.....	24
I.	ERANSKINA: INTERES PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOA	25

1. AURREKARIAK

Elgoibarko transformazioko azpiestazio elektrikoa (aurrerantzean, Elgoibarko TA) Elgoibarko Azkue auzoan (San Roke) dago. 1958az geroztik martxan dagoen instalazioa da, eta 2016ko ekainaren 24ko erregularizazioagatik abiarazte-akta du, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko Sailak emandakoa.

Distantzia ertaineko edo handiko lineen bitartez jasotzen du azpiestazioak energia elektrikoko hornidura 132 kV-ko tentsioarekin eta 30 kV-ko tentsiora eraldatzen du, ondoren toki eta/edo eskualde mailan banatzeko. Oraingo instalazioa zaharkituta gelditu da eta ez du inguruko gaur egungo eskariari eta aurreikusten denari erantzuteko gaitasunik. Gainera, 132 kV-ko beste linea bat iritsiko dela aurreikusten da; beraz, beharrezkoa da instalazioa handitzea. Inguruabar hori baliatu nahi da instalazioen eraberritze sakona egiteko, teknologia modernoagoarekin, era horretan elektrizitate-horniduraren kalitatea zein haren erregularitasuna eta segurtasuna bermatzeko helburuz.

I-DE Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. Iberdrola Taldearen elektrizitate-banaketarako enpresak instalazioak birmoldatzeko bere planteamendua aurkeztu dio Elgoibarko Udalari. Aldez aurretik Plan Berezi bat formulatzea eta onestea eskatu dute udal zerbitzu teknikoek, Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Hirigintzako Arauen 89.3.B artikulua betetze aldera.

2. PLAN BEREZIAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

2.1. Plan Bereziaren irismena eta xedea

Plan Berezi honen xedea da Elgoibarko transformazioko azpiestazio elektrikoaren (Elgoibarko TA) eremuaren antolamendu zehatua egitea, instalazioak eraberritzea eta haren gaitasuna handitzea ahalbideratzeko; plan berezi hau izango da eremu horretako etorkizuneko jarduketaren hirigintzako oinarria.

Epe labur eta ertainerako aurreikusitako jarduketak ahalbideratzeaz gain, gaur egun aurreikusita ez dauden etorkizuneko beharrei erantzutea ahalbideratuko duen antolamendu bat eman nahi zaio eremuari.

I-DE Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. Iberdrola Taldearen elektrizitate-banaketarako sozietateak sustatu du Plan Berezi hau; sozietate hori arduratzen da Taldearen energia elektrikoa banatzeko sareak mantentzeaz eta kudeatzeaz.

2.2. Erabilitako figuraren justifikazioa

EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 28.5 artikulua a) atalean (aurrerantzean, LHL) zehazten da honako jarduketa hauek egin daitezkeela lurzoru urbanizaezinean:

a) Ondoren zehazten diren zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzea beste helbururik ez duten jarduketak: alde batetik, arlo jakin bateko legeriak –aplikatzekoa denak– edo lurraldearen plangintzak interes publikokotzat jo dituenak, eta bestetik, kasu jakinetan, dagokion foru aldundiak interes publikokotzat jo dituenak; bigarren hori, 20 egunetz jendaurrean edukitzeko tramitea bete ondoren, ebazpen baten bidez egingo du.

LHL garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, bestalde, lurzoru urbanizaezineko erabilerak eta jarduerak arautzen ditu 4. artikuluan; besteak beste, zehaztaperen hauek jasotzen ditu:

2.- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan adierazitako

jarduketak berariaz eta soilik honako honetara bideratuko dira: hirigintza-plangintzarekin bat etorritz, landa-ingurunearen ordenamendurako eta garapenerako lagungarriak izateagatik edo aplikatu daitezkeen sektore-legeriak edo lurralde-plangintzak interes publikokotzat deklaratu dituelako, landa-ingurunean kokatu behar diren zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak ezartzera. Adierazitako zuzkiduren, ekipamenduen eta jardueren ezarpen jakin bakoitzak dagokion Foru Aldundiaren ebazpen bidez interes publikokotzat deklaratu izan beharko du, jendaurrean agertzeko hoguei eguneko izapidearen ondoren.

3.- Aurreko paragrafoan adierazten diren eta, gainera, ingurumen-inpaktuaren banakako deklarazioa behar duten jarduketak eta 5.000 metro koadro baino gehiagoko lurzoruak eraginpean hartzen dituzten jarduketak baimentzeko, gehigarri gisa, plan berezi bat idatzi eta onartu beharko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan adierazten denarekin bat etorritz. Plan hori behin betiko onartzea Foru Aldundiari baldin badagokio, interes publikokoa dela adierazten duen deklarazioa inplizituztat hartuko da, betiere aurretiaz plana jendaurrean jarri baldin bada.

LHLren 59.2.c.7 artikulua aipatzen du, lurzoru urbanizaezinari eragiten diotenean, 28. artikuluan aurreikusten diren mugekin ezarri eta definituko direla azpiegiturak, zuzkidurak eta ekipamenduak

Elgoibarko HAPOeko Hirigintzako Arau Orokorren 89.1 artikulua ezartzen du lurzoru urbanizaezinean jarduerak ezartzeko eta eraikitzeko ahalmena erabiliko dela hirigintzaren arloan indarrean dagoen legerian, HAPOean eta, hala badagokio, plan hori garatzeko sustatzen den plangintzan xedatutakoarekin bat etorritz.

89.3.B artikulua jasotzen du eraikuntza berrietan landaz kanpoko jarduera baimengarrietara bideratutako erabilera berriak ezartzeko –interes publikoko erabilerak (ekipamendu-erabilerak eta hirugarren sektorerako erabilerak; zerbitzu-azpiegitura pribatuak, etab.)–, beharrezkoa izango da alde aurretik plan berezi bat egitea eta onestea, eraikigarritasunari, eraikuntzari eta erabilerari dagozkion berariazko baldintzatzaileak definituko dituena.

2.3. Plana izapidetzea eta dokumentu hau justifikatzea

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko irailaren 27an egindako bilkuran, hasiera batean onartu zuen Azkue auzoko Azpiestazio Elektrikoaren Plan Berezia, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoak emango duen ingurumen-txosten estrategikoaren ondorioen baldintzapean. Dokumentua jendaurrean jarri zen hoguei egunez (GAO, 192. zk., 2021eko urriaren 6koa) eta epe horretan ez da alegaziorik jaso.

2021eko irailaren 28an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena eman zen, Elgoibarko Azpiestazio Elektrikoaren Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa egiteko (EHAA, 212. zk., 2021eko urriaren 25ekoa). Ebazpen horretan zehazten denez, ez da aurreikusten ingurumenean ondorio kaltegarri esanguratsurik eragingo duenik. Beraz, ez da ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik egin behar, baldin eta ebazpen horretan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, bai eta sustatzaileak planteatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira.

2021eko urriaren 8an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak aldeko txostena egin zuen.

Elgoibarko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari aurreikusitako jarduerak interes publikoa duen kontsulta egin zion. Egindako kontsultaren ondorioz, Plan Bereziak alderdi horren justifikazio bat eranstea eskatu zuen Aldundiak eta justifikazio hori dokumentazio osagarri gisa aurkeztu da.

Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak aldeko txostena eman zuen 2022ko apirilaren 6ko bilkuran.

Horrela, dokumentu hau behin betiko onartzeko idatzi da, eta hasieran onetsitako dokumentuari dagokionez doikuntza hauek egin dira:

- I. eranskina gehitu da, interes publikoaren justifikazioa (lehenago dokumentazio osagarri gisa aurkeztua).
- 6.4 atalean jasotako interes publikoari buruzko paragrafoa kendu da. Indarrean dagoen araudia betetzearen justifikazioa: I. eranskinak ordeztu du.

- Hirigintza-arauen 10. artikuluaen edukia aldatu da, memoriaren I. eranskin berrian egindako justifikazioarekin bat etorriz.
- Ingurumen-txosten estrategikoan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak sartu dira Ingurumen Txosten Estrategikoaren 7.1 «zehaztapenak» atalean, hasieran onetsitako dokumentuan aurreikusita zegoen bezala.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren txostena oinarri hartuta, 7.3 «aintzat hartutako beste alderdi batzuk» ataleko «errepideen gaineko eragina» puntuaren edukia aldatu da.

Aldaketa horiek guztiak alderdi osagarriak eta formalak dira, eta ez dute hasieran planteatutako proposamenaren funtsezko aldaketarik eragiten; beraz, ez dute informazio publiko berririk behar.

3. EREMUAREN DESKRIBAPENA ETA EZAUGARRIAK

3.1. Eremuaren kokalekua eta mugapena

Elgoibarko azpiestazio elektrikoa (Elgoibarko TA) Azkue auzoan dago (San Roke), San Bizente-San Roke ermitaren inguruan, Elgoibarko hirigunearen hegoaldean. 7.790 metro koadroko azalera du, eta hauexek dira lursailaren mugak:

- Iparraldean eta mendebaldean, Azkue auzorako (San Roke) bidea (GI-3322).
- Hegoaldean eta ekialdean, nekazaritza-lursailak.

Pl.01 deritzon planoak jasotzen du Elgoibarko TAREN kokalekua udalerriko hirigunearekiko; ondoren ere adierazten da, ortofotoan.



Elgoibarko TAREN kokapena

3.2. Ezaugarri fisikoak

Pl.02 "Mugapena. Egungo egoera" deritzon informazio-planoak eremuaren egungo egoera islatzen du; jarraian jasotzen dira eremuaren egungo ezaugarri nagusiak.

Elgoibarko TAK 7.790 metro koadroko azalera du berriki egindako plano gaineko neurketaren arabera. Plataforma horizontal samarra okupatzen du, perimetro-hesi batek erabat mugatzen duena. Forma errektangular samarra du, ipar-mendebaldeko izkina alakatua duena, 138 metroko gehienezko luzerarekin eta 66 metroko gehienezko zabalerarekin. +122,5eko kota inguruan dago eremurako ibilgailu-sarbidea, eta lursailak malda txiki bat du, +120ko kotara artekoa, gutxi gorabehera. Eremua ia erabat urbanizatuta dago.

Hainbat eraikin daude, jarraian deskribatzen direnak:


Eraikina	Azalera (m²t)	Altuera (m.)
Etxebizitzak	210	4,5
Kontrolerako eraikuntza	180	4,5
Biltegia	105	4,5
GUZTIRA	495	

Eremuaren hego-ekialdean 132 kV-ko sistemari dagokion tresneria dago; erdiko zatian, transformazio-gunea dago, eta ipar-ekialdean, 30 kV-ko sistemari dagokion tresneria. 132 kV-ko eta 30 kV-ko zonak sarrerako eta irteerako linea elektrikoekin konektatuta daude, hurrenez hurren.

Eremuaren inguruan Azkue auzoko (San Roke) hainbat eraikin dago. Horien artean, nabarmentzekoa da San Bizente-San Roke ermita. Eremuaren ipar-mendebaldeko mugan, forma errektangular oso luzanga duen eraikin bat dago, bolatoki bat dirudiena. Zelandi baserria Elgoibarko Tarako ibilgailu-sarbidetik oso hurbil dago. Azpiestazioaren mugaren ondoan, ipar-ekialdeko muturrean, erortzeko zorian dagoen txabola bat dago. Ipar-ekialdeko aldean, Mintxeta kiroldegia dago, 52 metroko distantziara hurbileneko muturrean.

3.3. Katastro-egoera

Plan Berezi honen xede den eremua Elgoibarko azpiestazio elektrikoari dagokiona da, bat datorrena 4784089 zenbakidun katastro-erreferentziadun lursailarekin; erreferentzia horren 7.740 metro koadroko azalera adierazten du, Plan Berezi honetan kontuan hartu dena baino pixka bat txikiagoa, agiri honetan erabili den kartografia askoz xehetasun handiagokoa baita. Plan Berezi honen sustatzailea den I-DE Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. sozietateari dagokio lursail horren titulartasuna.



Katastro-egitura. Gipuzkoako katastroa

3.4. Argazki-erreportajea





4. HIRIGINTZA-EGOERA

Elgoibarko HAPO 2013ko martxoaren 5ean onetsi zen behin betikoz. Jarraian, agiri honi eragiten dioten zehaztapen garrantzitsuenak jasoko ditugu.

Energia elektrikoa banatzeko sarea

Elgoibarko HAPOk energia elektrikoa banatzeko udalerriko funtsezko sare gisa finkatzen du Elgoibarko TA. PI.03 "Elgoibarko HAPO. Energia elektrikoa banatzeko sarea" informazio-planoak HAPOn jasotzen den E.III.3 "Azpiegiturak: Energia elektrikoa banatzeko sarea" planoaren zati bat irudikatzen du, eta hor jasotzen da aipatutako azpiestazioa, proposatutako sarearen parte gisa.

Elgoibarko HAPOk (Memoriaren 19.1 atala) erabat finkatutzat jotzen du energia elektrikoaren hornidura-sarea –beste sare batzuekin batera–, konpainia hornitzaileek uste baitute dagoen eskariari behar bezala erantzuteko moduan daudela gaur egun eta, beraz, ez dela beharrezkoa garrantzi handiko jarduketarik egitea.

HAPO idatzi zenean ez zen oraindik agerian jarri Elgoibarko TA ez zela nahikoa etorkizuneko eskariari erantzuteko, beraz, ez du jasotzen hura eraberritzeko eta/edo handitzeko beharra. Nolanahi ere, azpiestazioaren egin nahi den birmoldaketak ez du garrantzi handirik lurraldeari dagokionez, orain dagoen barrutiaren barruan egingo baitira arazoa konpontzeko jarduketak.

Hirigintzako Arau Orokorren 89.3.A artikulua HAPO onetsi baino lehen zeuden eraikuntzak finkatzen ditu, baldin eta baimendutako erabilerak badituzte.

Lurzoru Urbanizaezinaren kategorizazioa

Elgoibarko HAPOk udalerriko lurzoru urbanizaezinaren baso-erabileraren kategorian sartzen du Elgoibarko TA. PI.04 "Elgoibarko HAPO. Lurzoru urbanizaezina" informazio-planoak HAPOn jasota dagoen "E.I.2 "Lurraldearen sailkapen orokorra" planoaren zati bat irudikatzen du, eta hor ikusten da lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa azpiestazioaren ingurunean.

Gainera, honako kategoria honen barruan ere sartzen du HAPOk eremua: AC.ae. Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Landazabalekoa. Azpikategoria: Nekazaritza-erabilera Estrategikoa.



HAPOko E.II.1 Antolamenduko Ingurumen-unitateak planoaren zati bat

Lurzoru-kategoria hori Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean ezarritako Nekazaritza eta Abeltzaintzakoa eta Landazabalekoa. Azpikategoria: Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta Abeltzaintzakoa Kategoriarri dagokio, eta haren arauketa bat dator Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoarekin.

Kategoria horretan, nekazaritza-sektorerako ikuspegi estrategiko batekin kontuan hartzen diren zonak sartzen dira; horrela, zona horiek kontserbatzea eta zaintzea lehentasunezkoztat jotzen da, beste erabilera batzuen aurrean. Gaitasun agrológico handiko lurak zein, haien modernotasun, errentagarritasun edo jasangarritasunagatik, sektorerako estrategikotzat jotzen diren nekazaritzako ustiatuegien lursailak sartzen dira hor.

Linealak ez diren A motako zerbitzuen instalazio teknikoak, tartean Elgoibarko TA, talde honetan sartzen dira: “nahi ez diren erabilerak eta jarduerak, goi-mailako antolamendu-tresna baten babesean edo administrazioaren kontrola duen protokolo baten babesean soilik egin daitezkeenak”

Harrigarri samarra da Elgoibarko HAPOk Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean jasotzen den lurzoruen kategorizazioa aplikatu besterik ez egin izana, azken hori xehetasun askoz txikiagoko eskala batean eginda baitago, eta ez egin izana Elgoibarko Taren berariazko erregulazio bat lurzoru urbanizaezineko zerbitzu-azpiegituretarako kategoria propio baten barruan; koherenteagoa izango litzateke hori, energia elektrikoa banatzeko sareko funtsezko elementu gisa finkatuta baitago agiriaren beste atal batean.

Hiri-lurzoruarekiko eta lurzoru urbanizagarriarekiko erlazioa

Lurzoru urbanizaezin sailkapena duen arren, Elgoibarko TA hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrietatik oso hurbil dago.


PI.05 "Elgoibarko HAPO. Hiri-lurzoruekiko eta lurzoru urbanizagarriekiko erlazioa" deritzon informazio-planoak HAPON jasotzen den San Roke-Basarte-Mintxeta zonaren "Egungo egoera. Lurzoruaren mugapena, sailkapena eta kategorizazioa" planoaren zati bat irudikatzen du. Elgoibarko TA lurzoru urbanizaezin poltsa txiki baten barruan dago; mendebaldean, 3.G Erretsundi hirigintza-eremuarekin egiten du muga –sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarria–, eta iparraldean eta ekialdean, 3.E San Roke eta 3.F Mintxeta areekin –hiri-lurzoru finkatuak–.

5. INGURUMEN- ETA SEKTORE-BALDINTZATZAILE NAGUSIAK

5.1. Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala

EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala irailaren 16ko 177/2014 zenbakidun Dekretu bidez onetsi zen behin betikoz (EHAA, 198 zk, 2014ko urriaren 17koa). Funtsean, tresna horren helburua da, urte hauetan guztietan onetsitako beste tresna sektorial batzuekin koordinatuta, balio handieneko nekazaritza-lurzoruak babesten laguntzea.

“Nekazaritza eta Abeltzaintzako. Balio estrategiko handia” kategoriaren barruan dago Plan Berezi honen eraginpeko eremua.



Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala

Plan Berezi honen xedea linealak ez diren zerbitzuen instalazio teknikoaren barruan (A motakoak) sartzen da (37. artikulua), “100 metro koadro baino gehiagoko azaleradun transformazio-estazioen” kategorian.

Nahi ez den erabilera bat da (3a) balio estrategiko handiko kategorian, nahiz eta, salbuespen gisa, onargarria izango den nekazaritzaren arloan eskumena duen organoaren aldeko irizpenarekin; horretarako, organo horrek nekazaritza- eta basozaintza-jarduerengan duen afektazioa berariaz kontuan hartu eta, NSEEP protokoloan jasotakoaren arabera neurri zuzentzaileak ezarriko ditu.

Hala ere, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren zehaztapen horiek ezin dira aplikatu kasu honetan, Elgoibarko TA lehendik dagoen instalazioa baita, 1958az geroztik martxan dagoena eta administrazio-baimen guztiak indarrean dituen, eta ingurunean energia elektrikoa banatzeko sarearen funtsezko elementua. Plan Berezi honek ez du inolako eraginik nekazaritza- eta basozaintza-jardueran, egungo instalazioaren perimetrora mugatzen baita, eta eremu horretan ez baitago nekazaritzako eta basozaintzako batere jarduerarik.

5.2. Errepideak

Eremuak San Roke, Azkue eta Beratzeta (Elgoibar) auzoetarako GI-3322 errepidearekin egiten du muga hegomendebaldean; errepide hori tokiko errepide-sarean sartzen da (sare grisa). Errepideei buruzko Foru Arauaren (1/2006 Dekretua) 57. artikuluan ezartzen da 12 metroko gutxienezko distantzia egon behar dela edozein eraikuntzaren eta errepide-ertzaren edo galtzadaren kanpoko marraren artean.

Kontuan izanda aldez aurretik distantzia txikiagoa dagoen etxebizitza-eraikin bat dagoela, I-DE sozietateko arduradunek eta errepideetako foru organismoaren artean aurrez izandako elkarrizketetan erabaki da dagoen etxebizitza-eraikinaren ordez aurreikusita dagoen eraikuntza berriak egungo eraikinaren lerrokadura bera izango duela eta ez dela aldatuko instalazioerako egungo sarbidea.

Iberdrola Distribución Eléctrica S.A. sozietateak Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide-azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendari Nagusiari egindako eskaerari erantzunez, 2019ko otsailaren 22an ebatzen da adierazitako obrak, erabilerak eta garraioak baimentzea, erantsitako betekizunei eta baldintzei jarraiki. Baimen hori iraungita dagoen eta berriro eskatu beharko den arren, agerian uzten du errepideetako organismoak ez duela eragozpenik izango aurreikusitako obrak baimentzeko.

5.3. Zortasun aeronautikoak

Elgoibar udalerriak Bilboko Aireportuko zortasun aeronautikoen eragin oso zehatza du (370/2011 Errege Dekretua, martxoaren 11koa), Eibarrekiko mugan dagoen eremu oso mugatu batean; Idotorbeko zonaraino (San Pedro) iristen da esparru hori, baina ez hirigunera. Bitarteko hurbilketak mugako (ILS 30 maniobra) aireontzien operazioetako zortasunaren eraginpean dago eremu hau. 1.043 metroko altueran dago aireontzien hurbilketa planoak.

Aireontzien operazioetako zortasun-areak ez du agiri honetako eremua hartzen, zortasun horren eragipeko areatik 4 bat kilometrora baitago. Nolanahi ere, Elgoibarko TA +120 inguruko kotan dago; beraz, plano horrekiko 923 metroko distantzia dago.

5.4. Afektazio akustikoak

213/2012 Dekretuaren 37. artikulua ezartzen du etorkizunean hirigintza-garapenak egitea aurreikusita dagoen eremuei, erabilera urbanistikoen kalifikazio berriak barne, Eragin Akustikoari buruzko Ikerketa erantsi beharko zaiela dagozkien hirigintza- eta ingurumen-izapideetan. Ikerketa horiek eremuak jasango duen eragin akustikoa aurreikusten duten zarata-mapak eta ebaluazio akustikoak barne hartu beharko dituzte.

Plan Berezi honen xede den eremua ez da eremu akustiko bat. Indarrean dagoen araudian jasotzen den eremu akustikoen sailkapena pertsonen presentzia etengabea duten hiri-lurzoruko edo lurzoru urbanizagarriko hirigintza-eremu konbentzionaletarako pentsatuta dago, hortik dator haien eremu/sektore izena, eta aurreikusitako erabilerak era horretako lurzoruen ohiko erabilerak dira. Aitzitik, eremu hau lurzoru urbanizaezineko jarduketara isolatu bat da, eta energia elektrikoa banatzeko instalazioetarako erabilera du, ez duena behar pertsonen etengabeko presentziarik.

6. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN EZAUGARRIAK

6.1. Plan Bereziaren irizpideak eta helburuak

Aurreko ataletan adierazi dugun bezala, Plan Berezi honen helburua da Elgoibarko transformazioko azpiestazio elektrikoaren (Elgoibarko TA) eremuaren antolamendu xehatua egitea, instalazioak eraberritu eta haren gaitasuna areagotu ahal izateko, eta hirigintza-oinarria izango da eremu horretan etorkizunean egin litezkeen jarduketetarako. Epe labur eta ertainerako aurreikusitako jarduketak ahalbideratzeaz gain, gaur egun aurreikusita ez dauden etorkizuneko beharrei erantzutea ahalbideratuko duen antolamendu bat eman nahi zaio eremuari.

Elgoibarko TA birmoldatuko da haren gaitasuna areagotzeko beharra dagoelako, handitu egin baita inguruko elektrizitate-eskaria. Zonako eskari elektrikoa handitu egin denez, beharrezkoa da instalazioa elikatuko duten 132 kV-ko linea berriak eraikitzea. Elikadura gehigarri hori dela eta, beharrezkoa da instalazioaren 132 kV-ko sistemaren gaitasuna areagotzea. Aldi berean, beste esku-hartze batzuk ere behar dira jarduketa horretarako; gauzak horrela, ezinbestekoa da azpiestazioa sakon birmoldatzea.

6.2. Aztertu diren aukerak

0 aukera edo Ez esku hartzearen aukera

Aukera horretan, egungo egoeran utziko litzateke Elgoibarko TA. Aukera honekin, Elgoibarko azpiestazioak ezingo lioke erantzun inguruan gertatu den eskari-igoerari, ezinezkoa baillitzateke haren gaitasuna areagotzea.

Elgoibarko Taren gaitasuna areagotzea ezinezkoa izango balitz, transformazioko beste azpiestazio elektriko bat eraiki beharko litzateke, eta lurraldearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspuntuetatik, zaila izango litzateke hori justifikatzea. Dagoen azpiegitura eta lehendik antropizatuta dagoen lurzoria optimizatzea funtsezko jasangarritasun-irizpideak dira.

1. aukera: gaitasuna handitzea, izaera estentsiboarekin:

1. aukerak Elgoibarko Taren gaitasuna handitzea jasotzen du, gaur egun dauden ekipoak eta teknologiak mantenduta.

132 kV-ko linea berriak iritsiko direnez, beharrezkoa izango da 132 kV-ko posizio osoak handitzea, linea berrien posizio horien kontrol- eta babes-elementuei dagozkion tresneria jartzeko. Horrek 45 x 15 metroko gutxieneko espazio bat izatea eskatzen du, 700 metro koadro ingurukoa; gaur egun ez dago espazio hori.

Aukera hau gauzatzeko, ezinbestekoa da Elgoibarko Taren perimetroa handitzea, mugakide dituen beharrezko lurzoruak desjabetuta. Azpiestazioarekin muga egiten duen lurzoria nahiko laua da, eta eskura liteke beharrezko espazioa, beharrezko betelanak eginda.

Hala ere, Elgoibarko TA fisikoki handitzea –etorkizunean egitea bazter ezin daitekeen aukera den arren–, ez litzateke egokiena izango, baldin eta hori egitea saihesten beste aukera batzuk badaude, batez ere kontuan hartuta inguruko lurzoruek nekazaritza-balio handia dutela eta mugak daudela lurzoru horietan nekazaritza-ustiakuntzarekin lotuta ez dagoen edozein erabilera ezartzeko.

2. aukera: gaitasuna handitzea, izaera intentsiboarekin:

2. aukerak helburu bera du, Elgoibarko Taren gaitasuna handitzea, eskariari erantzun ahal izateko, baina ekipoak eta instalazioak teknologia aurreratu eta seguruagoan oinarrituta modernizatuz.

Lehenengo fasean, 132 kV-ko aire zabaleko sistema osoa trinkotuko litzateke, gaur egun etxebizitza-eraikina dagoen

lekuan GIS (gas insulated substation) teknologiadun 132 kV-ko ekipoak hartuko lituzkeen eraikuntza bat eraikita, instalazio berri guztiak bertan hartzea ahalbideratuko lukeena. Behin 132 kV-ko sistema osoa eraikinaren barruan trinkotu ondoren, 132 kV-ko aire zabaleko parke horren instalazio guztiak desegino lirateke.

Bigarren fasean, 30 kV-ko aire zabaleko sistema osoa trinkotuko litzateke, azpiegitura berriak hartuko lituzketen gelaxka batzuk eraikita. Aurreko kasuan bezala, behin sistema gelaxka berrietan trinkotu ondoren, desegin egingo dira 30 kV-ko aire zabaleko instalazioak.

Abantaila garrantzitsuak ditu aukera honek:

- Abantaila funtzionalak eta segurtasunekoak: 132 kV-ko eta 30 kV-ko gelaxkak eraikin trinko berrien barruan muntatuta, SF6 isolamendudun metalezko ingurutzaila blindatu baten azpian jarriko da tresneria; teknologia horrek hainbat abantaila eskaintzen dizkio sistemari, hala nola dimentsio txikiak, kutsadura atmosferikoaren eta hautsaren aurrean sentikortasunik eza eta, gainera, oso fidagarria eta erabilgarria da, eta askoz segurtasun handiagoa ematen dio instalazioari.
- Lurzoru antropizatuaren optimizazioa: aukera honek, Elgoibarko TAREN lurzorua handitzeko beharrik ez izateaz gain, azalera handi bat libratzen du, etorkizunean azpiestazioaren gaitasuna handitzeko egin litezkeen lanetarako erabili ahal izango dena, gaur egun aurreikusten ez diren etorkizuneko eskari eta beharrei erantzuteko aukera bermatuz.
- Inpaktu bisuala eta paisaiarekiko inpaktua murriztea: instalazioak eraikin itxietan trinkotzeak gaur egun aire zabalean dauden instalazio gehienak kentzea dakar; horrek nabarmen murrizten ditu inpaktu bisuala eta paisaiarekiko inpaktua, eta instalazioak hobeto integratzen dira ingurunean.

6.3. Proposatutako antolamenduaren deskribapena

Aztertutako aukerek dituzten abantailen eta desabantailen analisisian eta ingurumenarekiko inpaktuaren balorazioan oinarrituta, 2. Aukera garatzen du Plan Berezi honetan proposatzen den antolamendua.

Epe labur eta ertainerako aurreikusitako jarduketak

2. Aukeraren deskribapenean adierazi dugun bezala, 132 kV-ko sistema trinkotuko da lehenengo fasean, 132 kV-ko linea berrien etorrerarekin lotuta. 132 kV-ko beste dorre bat ezarriko da, 45 metro inguruko altuerakoa. Linea horren eraikuntza ez dago Plan Berezi honen esku, baizik eta dagokion legeria sektorialari dagokio.

Horretarako, 132 kV GIS Eraikina deritzon eraikin bat altxatuko da, hormigoizko edo metalezko aurrefabrikatutako eraikin panelagarria. Eraikin hori gaur egun etxebizitzaren eraikina dagoen lekuan kokatuko da, baina aztarna handitu egingo da pixka bat egungo eraikuntzarekiko. Eraikinak 9,2 metroko zabalera, 33 metroko luzera eta 8 metroko altuera ditu. PII.04 "Eraikuntzaren ezaugarriak" deritzon planoak grafikoki islatzen ditu eraikin horren ezaugarriak. 132 kV GIS Eraikina eraiki ondoren, aire zabalean dagoen 132 kV-ko sistema osoa kentzeari ekingo zaio. Osagarri modura, eremuaren barne-urbanizazioa osatzea planteatzen da, barneko bidea hego-mendebalderantz luzatuta.

Bigarren fase batean, aire zabalean dagoen 30 kV-ko sistema trinkotuko da. Horretarako, eraitsi egingo da gaur egungo biltegia, eta aurrefabrikatutako bi etxola eraikiko dira, 4,2 metroko zabalera, 11,2 metroko luzera eta 4 metroko altuera izango dutenak, eta han jarriko dira instalazio berriaren gelaxkak. Etxola horiek eraiki ondoren, kendu egingo da aire zabalean dagoen 30 kV-ko sistema osoa. Aurrez aipatutako PII.04 planoan ere jasota daude eraikin horien ezaugarriak.

Esku-hartze biak egikarituta, espazio handia libratuko da Elgoibarko TAREN barrualdean. Gaur egun ez dago zona horretan jarduteko aurreikuspen zehatzik, nahiz eta Plan Berezi honek etorkizunean Elgoibarko TAREN gaitasuna handitu ahal izateko hainbat erabaki hartzen duen.

Antolamendurako irizpideak

PII.01 "Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak" planoak jasotzen du proposatutako antolamendua, eta PII.2

“Antolamendu orokorra. Sekzioak” planoak, berriz, eraikuntza berrien gehienezko eta aurreikusitako sekzioak islatzen ditu.

Eraikuntzaren gehienezko lerrokadurak ezartzen dira, eraikuntza berriak jarri ahal izango diren gehienezko ingurutzaila definitzen dituztenak. GI-3322 errepideranzko aurpegian, egungo etxebizitza-eraikinaren lerrokadurari eusten zaio, errepideen foru organoarekin hitzartutakoari jarraiki. Gainerakoan, lehendik dauden lerrokadurarekin bat datoz, hein handi batean, gehienezko lerrokadurak. Lerrokadura horietan antolatuko dira epe labur eta ertainean egikaritzea aurreikusten diren eraikuntzak.

Lursailaren barruan, gaur egun 132 kV-ko sistemak okupatzen duen zona –aire zabalean dauden instalazioen deuseztapena gorabehera–, eraikuntza berriak hartzeko gaitasuna (132 kV-ko dorre berria, irteerak fluoduktoan, transformadoretarako harguneak, etab.) baldintzatuko duten instalazioak mantenduko dira.

30 kV-ko sistema trinkotuta libratuko den zona erreserba-espazio bat da, etorkizunean gaitasuna handitzeko edo aurrerago sor litezkeen beste behar batzuei erantzuteko eraikin edo instalazio berriak eraikitzea ahalbidera lezakeena. Plan Bereziak etorkizuneko eraikuntzetarako gehienezko lerrokadurak aurreikusten ditu, baina kontuan hartuta etorkizunerako aurreikuspena dela eta lursailaren barne-berrantolamendu sakona gerta litekeela, eraikuntzako lerrokadurak, sestrak eta altuerak Xehetasun-azterketa baten bitartez aldatu ahal izatea ahalbideratzen da.

Instalazioetarako eraikuntzarakoak ez diren beste gehienezko lerrokadura batzuk ezartzen dira, eta horietara egokitu beharko dira etorkizunean eraiki litezkeen instalazioak. Lerrokadura oso generikoak dira, jarduteko marjina handia uzten dutenak, kontuan hartuta lursailaren beraren izaera transformazio elektrikoko instalazio batena dela eta lursailaren barne-konfigurazioa nabarmen alda litekeela etorkizunean.

Eraikigarritasuna

Eremuan aurreikusten den eraikigarritasuna epe labur eta ertainerako aurreikusten diren jarduketan araberakoa da; horri gehitu behar zaio gaur egun aurreikusita dauden instalazioak bikoiztea ahalbideratuko duen erreserba-gaitasuna.

Honako hau izango litzateke eraikigarritasunaren banakatzea:

<i>Eraikina</i>	<i>Azalera (m²t)</i>	<i>Altuera (m.)</i>
Kontrolerako eraikuntza	180	4,5
GIS Eraikina (132 kV-ko sistemaren trinkotzea)	303	8,0
Gelaxkak (30 kV-ko sistemaren trinkotzea)	95	4,0
Erreserba	600	4,5
GUZTIRA	1.178	

6.4. Indarrean dagoen araudia betetzen dela egiaztatzeko justifikazioa

Jarraian, goragoko mailako arauzko zehaztapen nagusiak betetzen direla egiaztatzeko azalpenaren laburpena jasotzen da:

- Dokumentazioa: Plan Bereziak 2/2006 Legearen 69. artikuluan plan berezietarako ezartzen diren eduki guztiak jasotzen ditu, baita 2/2006 Legea garatzen duen presazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikuluan ingurumen-ebaluazioa behar duten planetarako ezartzen dituen edukiak ere.
- HAPOren baldintzatzaileak: Elgoibarko HAPOk Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arauzko baldintzatzaile berak jasotzen ditu, ondorengo puntuan justifikatzen direnak. Bestalde, udalerrian energia elektrikoa banatzeko sarea osatzen duen instalazio gisa finkatzen du, HAPO onetsi zen unean 50 urte baino gehiagoz martxan zegoen instalazioa baita.
- Nekazaritza eta abeltzaintzarekiko afektazioa: Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lurralde Plan Sektorialak ezartzen du nahi ez den erabilera bat dela (3^a) balio estrategiko handiko kategorian eta, salbuespen gisa, onargarria izango litzatekeela, nekazaritzaren arloan eskumena duen organoaren aldeko irizpenarekin; horretarako, organo horrek nekazaritza- eta basozaintza-jarduerengan duen afektazioa berariaz kontuan hartu eta, NSEEP protokoloan jasotakoaren arabera neurri zuzentzaileak ezarriko ditu. Hala ere, hori ez da aplikagarria kasu honetan, 1958az geroztik martxan dagoen instalazioa delako, energia elektrikoa banatzeko sarearen funtsezko osagaia dena, eta beharrezko baimen guztiak dituena. Ez du inolako eraginik nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan, Plan Berezia Elgoibarko TAREN egungo perimetrora mugatzen baita, eta eremu horretan ez baitago era horretako jarduerarik.
- Ur-baliabideak eta saneamendua: Plan Berezi honek antolatzen duen instalazioak ez du ur-beharrik, ezta saneamenduko azpiegituren beharrik ere. Murriztu egiten dira egungo beharrak, antolamenduz kanpo uzten baitu gaur egun dagoen etxebizitzaraikina.
- Kutsadura akustikoa: Plan Berezi honen eremua ez da eremu akustiko bat; beraz, ez du kanpoko espazioko kalitate akustikoari dagokion helbururik. Pertsonen etengabeko presentziarik behar ez duen instalazioa da.

7. INGURUMEN-JASANGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENA

2/2006 Legea garatzeko presazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua ezartzen du ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiten zaien hirigintzako agiriak ingurumen-jasangarritasunari buruzko txosten bat ere izan beharko dutela, antolamendua garapen jasangarriaren printzipiotik egin dela arrazoitzen duena, besteak beste.

7.1. Ingurumen-txosten Estrategikoaren zehaztapenak txertatzea

2021eko irailaren 28an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena eman zen, Elgoibarko Azpiestazio Elektrikorako Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa egiteko (EHAA, 212. zk., 2021eko urriaren 25ekoa). Ebazpen horretan zehazten denez, ez da aurreikusten ingurumenean ondorio kaltegarri esanguratsurik eragingo duenik, eta, beraz, ez zaio ingurumen-ebaluazio estrategikoa arruntik egin behar, baldin eta ebazpen horretan ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira, bai eta sustatzaileak planteatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira.

Aplikatu beharreko neurrien artean, Plana garatzeko proiektu eta jarduketetatik eratorritakoak nabarmentzen dira, bai obren faseari dagokionez, bai jardueraren funtzionamendu-faseari dagokionez. Besteak beste, neurri hauek hartu beharko dira:

Jarduketa-esparrua mugatzea:

- Obrak, bai eta lurzorua okupatzea dakarten lan osagarriak ere, Planaren lurzatiaren barruan egin beharko dira. Ahalik eta gehien murriztuko da obrako makinak eta ibilgailuak aipatutako mugetatik kanpo ibiltzea.
- Adierazitako eremutik kanpo istripuzko eraginik gertatuz gero, zuzenketa- eta lehengoritze-neurri egokiak ezarriko dira.

Ura eta lurzorua babestera bideratutako neurriak:

- Oro har, obra-fasean, ahalik eta efluente kutsatzaile gutxien sortuko da, eta ahalik eta material xehe eta gai kutsatzaile gutxien isuriko da drainatze-sarera.
- Obrako makinak gordetzeko eremua eta haiek mantentzeko tokia drainatze-sare naturaletik bereiziko dira. Zola iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema bat izango ditu, olio eta erregaiek lurzorua eta ura ez kutsatzeko. Horretarako ezarritako gunetik kanpo ez da baimenduko erregaia kargatu eta deskargatzea, olio aldatzea eta tailerreko jarduerak egitea.
- Hidrokarburoak xurgatzeko gai den material espezifikoak eduki beharko da eskura, istripuzko isuri edo jarioren bat gertatuz gero berehala aplikatu ahal izateko.
- Plana garatzeko jardueren barnean lursaila induskatu behar bada, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25.5 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da, bai eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren (ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena) 14. artikuluan ezarritakoa ere.
- Lurzorua kutsa dezakeen jarduera bat denez, gogorarazi behar da ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 8. artikuluan eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren xedapen iragankorrean adierazitakoa, lurzoruaren egoerari buruzko aurretiko txostenari dagokionez.
- Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako betebeharrei jarraikiz eta haren gomendioekin bat etorritik, Planaren sustatzaileak aurkeztutako ingurumen-dokumentu estrategikoan proposatutako neurriak hartu

beharko dira, zehazki:

- Instalazioak potentzia-transformadoreen olio dielektrikoaren ihesei eusteko prebentzio-sistema bat izango du, eutsi beharreko produktura egokitua eta azpiestazioaren transformadore bakoitzaren olio-bolumen osoari eutsi ahal izateko gaitasunarekin.
- Titularrak beharrezko diren bitartekoak izango ditu instalazioak behar bezala ustiatzeko eta istripuzko isurketak prebenitzeko hartutako segurtasun-neurriak modu eraginkorrean mantentzeko.

Atmosferara egindako emisioak gutxitzeko neurriak.

- Obrek dirauten artean, zorrotz kontrolatuko dira ibilgailuak igaro ondoko garbiketa-lanak, bai obrek eragina duten ingurunean, bai obrak egiteko eremuetara sartzeko lekuetan. Ureztapen- eta garbiketa-sistema bat edukiko da, aldi baterako estali gabe dauden eremuetarako eta ibilgailuak pasatzean material partikulatua isur daitekeen kasuetarako.
- Jarduerak iraun bitartean, neurri egokiak hartuko dira istripuzko isuririk ez egiteko, eta efluenteak giza osasunerako eta herritarren segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen.

Planaren sustatzaileak proposatutako neurriekin bat etorri, erabilitako gasa –besteak beste, dielektrikoa, sufre hexafloruroa (SF6)– manipulatzeko eska lezaketan mantentze-lanak beti egingo dira pertsonal kualifikatuarekin, eta prebentzio-neurri eta ekipamendu espezifiko egokiak hartuta. Lan horien ondorioz konpartimentuetako gasa hustu behar bada, hura jarduketa horietarako mantentze-lanen pertsonal kualifikatuak batuko du, eta, hala, libreki aireatzea saihestuko du.
- Azpiestazioak jardunean eragindako eremu elektriko eta magnetikoen balioek ezingo dituzte gainditu Europar Batasunaren Kontseiluaren 1999ko uztailaren 12ko Gomendioan –pertsonen eremu elektromagnetikoekiko (0 Hz-tik 300 GHz-ra) azalpenari buruzkoa– adierazitako muga-balioak eta oinarritzko mugaketak.

Inguruneko kalitate akustikoa babesteko neurriak:

- Lanek iraun bitartean, jardunbide egokiak aplikatu beharko dira sorburuan zaratak murrizteko, bereziki indusketa-, eraispen-, zamalan- eta garraio-lanetan, baita erabilitako makineriaren mantentze-lanetan, eta zaraten eta bibrazioen murrizketan.
- Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatzeko akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokionez, obrak egitean erabiliko diren makinak (baita errepideko zirkulaziorakoak ere) egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinen emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, egokitu beharko dira, hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Dekretuak aldatu du) eta arau osagarrietan ezarritakora.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsaduraren urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 35 bis artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, 6 hiletik gorako iraupen aurreikusia duten obraren kasuan, nahitaez egin beharko da inpaktu akustikoaren azterlana, neurri zuzentzaile egokiak zehazteko.

Inpaktu akustikoaren azterketan neurri zuzentzaileak zehaztuko dira, eta hor aztertuko da zer onura akustiko lortu nahi den neurri zuzentzaile horien bitartez, eremu akustikoetako eta eraikin sentikorretako zarata-maila murrizteari dagokionez, eta ukitutako udalerriari jakinarazi beharko zaio haren edukia.
- Planean jasotzen diren aurreikuspenak garatuz etorkizunean ezar daitezkeen instalazioei dagokionez, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 51. artikulua aplikatuta, zarata-foku berriek Dekretu horren I. eranskineko 2. zatian zehazten diren muga-balio aplikagarriak bete beharko dituzte.
- Beste alde batetik, jarduera egiterakoan, eta betiere bere eragin-eremuan, jarduerak ez du gainditu behar Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarrita dauden kalitate akustikoaren helburuak, zaratari dagokionez.

Hondakinen kudeaketara bideratutako neurriak:

- Instalazioan, bai obretan bai azpiestazioaren jardueran, sortutako hondakin guztiak kudeatuko dira Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoen ezarritakoaren arabera, eta, beharrezkoa bada, karakterizatu egin beharko dira euren izaera eta helburu egokiena zehazteko.
- Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz kudeatu behar dira, hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta balorizatzeke beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne.
- Hondakinak kasu honetan baino ezingo dira ezabatu: behar bezala frogatzen bada hondakinak balorizatzea bideraezina dela teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik.
- Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia ezberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereziko dira, eta horiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak ekiditeko.
- Eraikitze- eta eraipen-jardueren ondorioz sortutako hondakinak bi xedapen hauen arabera kudeatuko dira: Eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua eta Eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua. Eraikitzeke edo eraisteko obren hondakinei dagokienez, kutsatu gabeko induskatutako lurzoruak eta obretan induskatutako material naturalak badira eta obra gauzatzeko soberakin gisa sortzen badira, eta betelanelara edo jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetara zuzentzen badira, induskatutako material naturalak betelanelan eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau orokorreari buruzko urriaren 10eko APM/1007/2017 Agindua aplikatuko da, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 28. artikuluko aurreikuspenak aplikatuz.
- Aipatutako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 4. artikuluen arabera, proiektuaren sustatzaileak gehitu beharko dio eraikitze-proiektuari hondakinen eta eraikitze- eta eraipen-materialen kudeaketa-azterketa bat, zeinak dekretu horretako I. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko baitu.
- Bestalde, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan aurreikusitako eskakizunak betetzeaz gain, plan bat prestatuko du kontratistak, obrako eraikuntzako eta eraispeneke hondakin eta materialekiko betebeharrak nola beteko dituen azaltzeko.
- Zabortegeira bidali beharreko hondakinak, gainera, Hondakinak zabortegeetan utziz ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuan eta hondakinak hondakindegetan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera ere kudeatuko dira.
- Jarduerako soberakinak betelanak egiteko erabiltzen badira, aipatutako otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.
- Betelanak jalkitzeko, kutsatzaile-edukia A ebaluazioko balio adierazleetan (EBA-A) ezarritako balioen azpitik duten materialak bakarrik baimenduko dira. Lurzorua Kutsatzea Saihesteko eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen III. eranskinean daude jasota adierazle horiek.
- Hondakin arriskutsuentzako ontzietan dagokienez, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dira (Hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko araudia onartzen du errege-dekretu horrek); ontziok, gainera, itxita egongo dira kudeatzaileak jasotzen dituen arte, edukia isuri edo lurrundu ez dadin. Jarioak eragin ditzaketen hondakin arriskutsuek bilketa-sistema egokiak eta bereziak izango dituzte, hondakin jakin bat isurketaren batean nahastuz gero arriskutsuago bihurtu badaiteke edo kudeaketa zaildu badezake.
- Aipatutako ontziak edo bilgarriak argi eta modu irakurgarri eta ezabaezinean etiketatu beharko dira, baita

indarreko araudiaren arabera ere.

- Industrian Erabilitako Olioaren Kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatuko da sortzen den olio erabilia. Olio erabilia, kudeatzaile baimendu bati eman arte, estalpean utziko dira behar bezala etiketatutako depositu estankoetan; zolata iragazgaitz baten gainean egon beharko dute, kubo txikietan edo ihesei eta isuriei eusteko sistemen barruan.
- Obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipenari buruzko txosten osoa egin beharko da, eta txosten horretan sartu beharko dira indarreko legerian jasotako identifikazio-dokumentuak eta tratamendu-kontratuak.
- Eraikuntza eta eraikuntza jasangarrientarako behar diren ezaugarriak dagokienez, «EAEko eraikuntza iraunkorrerako gida. Eraikin Industrialak» argitalpeneko gomendioak erabiliko dira, eraikinen energia-aurrezpena eta -efizientzia bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko. Neurri horiek, gutxienez, honako alderdi hauetan eragin beharko dute:
 - o Materialak. Lehengai berriztaezinen kontsumoa murriztea.
 - o Energia. Iturri berriztaezinen bidez sortutako energia-kantitatea eta/edo energia-kontsumoa murriztea.
 - o Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa gutxitzea.
 - o Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
 - o Atmosfera. Gas-, hauts-, bero- eta argi-emisioak murriztea.
 - o Barne-kalitatea. Barruko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.
 - o Hondakinak. Hondakin solido gutxiago sortzea.
 - o Lurzoruaren erabilera. Lurzoruaren okupazioa murriztea.
 - o Mugikortasuna eta garraioa. Garraio-prozesuak gutxitzea eta pertsonen mugikortasuna hobetzea.

Jarduera uztea:

- Behin instalazioaren bitzita baliagarria amaituta, oro har kutsadura sor dezaketen elementu guztiak desmuntatu eta erretiratu beharko dira, eta dagokion kudeatzaile baimenduari emango zaizkio, kasuan kasuko tratamendu egokia egin dezan, indarrean dagoen legediaren arabera.
- Jarduera eten ondoren, titularrak ebaluatuko du lurzoria nola dagoen eta instalazioak erabilitako, ekoiztako edo zabalduetako gai arriskutsu esanguratsuek lurpeko uretan zer-nolako kutsadura eragin duten, eta, halaber, ingurumen-organoari emango dio ebaluazio horren emaitzen berri.

Nolanahi ere, jarduera uzteari dagokionez, nahitaez bete beharko dira Lurzoria Kutsatzea Saihesteko eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta hura garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan horren inguruan jasotzen diren xedapenak.

7.2. Ingurumenean ondorio negatiboak murrizteko neurriak eta Planaren ingurumen-jarraipena (Ingurumen-ebaluazio Estrategikoa)

Jarraian, Ingurumen-agiri Estrategikoan proposatzen diren neurriak jasoko ditugu.

Plana aplikatzeak ingurumenean izan dezakeen edozein ondorio negatibo prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, zuzentzeko aurreikusten diren neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta

Neurri hauen helburua da Plan Berezia aplikatzeak izan ditzakeen ondorio negatiboak, ahal den neurrian, saihestea, murriztea edo konpentsatzea, ingurumen-kalitatea mantentzearekin bateragarritzat jo daitezkeen maila iritsi arte. Obra-faserako eta ustiaketa-faserako neurriak berezi dira.

FASEA	IDENTIFIKATUTAKO INPAKTUA	PROPOSATZEN DEN NEURRIA
OBREN FASEA	Esekitako partikulak areagotzea, materialen garraioaren eta makineriaren mugimenduaren eraginez.	<p><u>1. NEURRIA:</u> Lur-materialak garraiatzen dituzten kamioiek lonak erabili beharko dituzte, materiala sakabana dadin saihesteko, eta neurrizko abiadura ibiliko dira (ordu 30 kilometroko abiaduraz azpitik obraren zonetan).</p> <p><u>2. NEURRIA:</u> Beharrezkoa izango balitz, ur-ureztatzeak egingo dira haizearen eraginpean dauden zonetan, metaketak eta lurrak dituzten zonetan eta makineria sarritan ibiltzen den zonetan.</p>
	Gas-emisioak areagotzea, erabiliko den makineriaren eraginez.	<p><u>3. NEURRIA:</u> Erabiltzen den makineriak IAT eginda izan beharko du, eta baimendutako tailerretan egin beharko dira makinek behar dituzten konponketak. Era horretan, behar bezala erreko dira erregaiak eta, beraz, klima-aldaketaren eragile diren gasen emisioak murriztuzkoak izango dira.</p>
	Zarata handitzea, makineriaren mugimenduaren eraginez.	<p><u>4. NEURRIA:</u> Ibilgailuek abiadura mugatuta (ordu 30 kilometroko abiaduraz azpitik) izango dute obra-zonetan, obratik hurbileko pertsonen eta animalien eragozpenik ez sortzeko, eta behar bezala funtzionatu beharko dute.</p> <p><u>5. NEURRIA:</u> Obrak egunez egingo dira, eta ezarritako egutegi baten barruan.</p>
	Lurzoruaren trinkotzea, makineriaren mugimenduaren eraginez.	<p><u>6. NEURRIA:</u> Ahalik eta gehien aprobetxatuko dira lehendik dauden sarbideak.</p> <p><u>7. NEURRIA:</u> Obrako ibilgailuek horretarako gaitutako sarbideak soilik erabiliko dituzte.</p>
OBREN FASEA		<p><u>8. NEURRIA:</u> Obra hasi baino lehenagoko fasean, igarotzeko zonak eta lanekoak seinaleztatu beharko dira, obrarako behar-beharrezkoak diren lursailetatik kanpo gerta litekeen edozein afektazio saihesteko helburuz.</p>
	Lurzoruaren eta uren kutsadura, materialen eta/edo obrako hondakinen isurketen ondorioz.	<p><u>9. NEURRIA:</u> Ibilgailuak baimendutako tailerretan konpondu beharko dira.</p> <p><u>10. NEURRIA:</u> Hondakinak behar bezala kudeatuko dira, haien izaeraren eta indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera. Hondakinak biltzeko edukiontzia egon beharko dira.</p>
	Biztanleei eragin dakizkiekeen eragozpenak	<p><u>11. NEURRIA:</u> Obra-fasean, biztanleenganako eragozpenak minimizatzeke, mugatu egingo dira zarata-mailak eta erabiltzen den makineriaren obraren zonako zirkulazio-abiadura (<30 km/h)</p>
	Paisaia-kalitatearekiko inpaktua.	<p><u>12. NEURRIA:</u> Behin obra amaitu ondoren, kendu egingo dira behin-behineko instalazioak.</p>

Obrak amaitutzat jo baino lehen, ondorengo operazioak egin diren egiaztatu beharko da:

- Behin eraikuntza-lanak amaitzen direnean, behar bezala kenduko dira obretan soberan gelditutako materialak eta ustekabeko edozein isurketa.
- Hala badagokio, berrezarri egin beharko dira sarbideak eta, gurutzatu eta/edo erabili behar izan diren eta, ondorioz, kaltetu diren zona guztiak.
- Garbitu egingo dira pilatutako materiala, maileguak edo hondakinak; garbiketa hori berehala egingo da materialak ibilgailuak edo oinezkoak igarotzea eragozten badu edo biztanleentzako edozein arrisku eragin balezake.

FASEA	IDENTIFIKATUTAKO INPAKTUA	PROPOSATZEN DEN NEURRIA
USTIAKETA-FASEA	Ur-masekiko inpaktua	<u>13. NEURRIA:</u> Olio dielektrikoa biltzeko 30 m ³ -ko edukiontzia (euspen-hartzailea)
	Airearen kalitatearekiko inpaktua	<u>14. NEURRIA:</u> Prestatuko langileek manipulatzeko SF6 duten ekipoak. <u>15. NEURRIA:</u> Gasa hainbat ganbera edo konpartimentu independente eta iragazgaitzetan banatuta egotea.
	Lurzoruarekiko inpaktua	<u>16. NEURRIA:</u> Olio dielektrikoa biltzeko 30 m ³ -ko edukiontzia (euspen-hartzailea) <u>17. NEURRIA:</u> Ekipo sendo eta fidagarriak erabiltzea.

Planaren ingurumen-jarraipena egiteko aurreikusitako neurrien deskribapena

Erakuntza-fasean, obraren kontrola egingo da, babes-neurrien eta neurri zuzentzaileen atalean adierazitakoari jarraiki egiten dela egiaztatzeko. Kontrol horrek, gainera, proiektu-fasean kuantifikatzeko edo detektatzeko zailak diren inpaktuen balorazioa egitea ahalbideratu beharko du, eta neurri zuzentzaile berriak diseinatu ahal izango dira, lehendik zeudenak nahikoa ez badira.

Behin obrak amaitu ondoren, berrikuspen osoa egingo da, obra-hondakinak behar bezala garbitu direla kontrolatzeko.

Jarraipen-txosten bat egingo da obrak amaitzen direnean; txosten horretan jasota geldituko dira obren jarraipenean zehar egindako ohartarazpenak, proposatutako neurriak aplikatuta lortu diren emaitzak eta, hala badagokio, detektatutako arazoak. Oso garrantzitsua da aurreikusi ez diren inpaktuak islatzea ere, halakorik egon bada.

Funtzionamendu-fasean, aplikatu diren babes-neurrien eta neurri zuzentzaileen eraginkortasuna aztertuko da, baita lekua egoera onean utzi dela ere.

7.3. Kontuan izan beharreko beste alderdi batzuk

Nahikoa ur-baliabide egotea

2/2006 Legea garatzeko presazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua ezartzen du jasangarritasun-txostenak administrazio hidraulikoaren txosten bat jaso beharko duela, eskari berriak asetzeko beharrezko ur-baliabideei eta jabari publiko hidraulikoaren babesari buruzkoa, arloko araudiaren arabera nahitaezkoa denean.

Plan Berezi honek antolatzen duen instalazioak ez du ur-kontsumorik behar, eta ez du saneamendu-beharrik, energia elektrikoaren transformaziorako instalazio bat baita. Aurreikusitako eraikinak pertsonen etengabeko presentziarik eta ur-kontsumorik behar ez duten transformazio-instalazioak hartzera bideratuta daude. Gaur egun dagoen eta ur- eta saneamendu-harguneak dituen etxebizitza-eraikina antolamenduz kanpo geldituko denez, murriztu egiten dira ur- eta saneamendu-beharrak.

Errepideekiko afektazioak

2/2006 Legea garatzeko presazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua ezartzen du errepideen eta alde zuzenetik dauden gainerako azpiegituren arloan eskumena duen administrazioaren txostena jaso beharko duela jasagarritasun-txostenak, planean jasotako aurreikuspenen afektazioari buruzkoa. Hirigintza-jarduketak bere zerbitzu-gaitasunean duen inpaktua aztertuko du txostenak.

2021eko urriaren 8an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak txostena egin zuen, eta bertan adierazten da dokumentua aztertuta ez dagoela eragozpenik Sail honek onartzeko dituen eskumenei dagokienez.

8. GIZARTE-JASANGARRITASUNA

8.1. Inpaktua, generoari dagokionez

Arau-esparrua

Ondorengo zehaztapenak ezartzen ditu Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko EAeko 4/2005 Legeak:

- 19.1. artikulua: Administrazio-arau edo -egintza bat egin baino lehen, hura sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du proposamenak zer inpaktu izan dezakeen emakumeek eta gizonen kolektibo modura duten egoeran. Horretarako, aztertu egin behar du administrazio-arauan edo -egintzan proiektatutako jarduerak ondorio onuragarriak edo kaltegarriak izan ditzakeen emakume eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.
- 22. artikulua: Arau- edo xedapen-proiektuari lege honen 19, 20 eta 21. artikuluekin eta haren emaitzekin lotuta egindako tramiteak xehetasunez azaltzen dituen memoria bat erantsiko zaio.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenak genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko Jarraibideak onartu, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen ditu.

Espediente honen izaerari eta edukiari buruzko kontsiderazioak, genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioari dagokionez

Hirigintza-espediente honen xedea da Elgoibarko transformazioko azpiestazio elektrikoa (Elgoibarko TA) birmoldatzea ahalbidertzeko hirigintza-arauketa ezartzea.

Ez da aldatzen gaur egun eremuak duen erabilera –transformazioko azpiestazio elektrikoarena, hain zuzen ere–; erabilera hori inguru horretan energia elektrikoa banatzeko sarearen elementua da. Erabilera horrek ez du pertsonen presentziarik eskatzen, mantenu- eta kudeaketa-lanak gorabehera, eta ez du inolako eraginik emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunean.

Proposatzen den antolamenduari dagokionez, Plan Berezi honen eremua lursail pribatu batera mugatzen da; beraz, ez du jasotzen haien diseinuan irizpide inklusiboari arreta berezia eskaini behar litzatekeen erabilera publikoko ezein espazioren antolamendua.

Ondorioak

Plan Berezi hau 40/2012 Ebazpenak onesten duen Jarraibideen agiriaren Lehenengo Jarraibidearen 2. puntuan ezarritako salbuespenen a) kasuaren barruan egongo litzateke Genero-inpaktuaren Txostena erantsi beharri dagokionez, Jarraibide horretan txostena prestatzeko eta onesteko prozedurari jarraiki.

a) Generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez dutenak, dela emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez dutelako, dela eragin hori hutsaren hurrengo delako; horrelakoan artean egongo dira betiere herritarren eskubideetan eta bidezko interesetan inolako eraginik ez duten proiektuak.

Memoria honetan luze eta zabal deskribatzen eta justifikatzen den agiri honen zehaztapenen edukitik argi eta garbi ondoriozta daiteke ez duela inolako eraginik gizonen eta emakumeen egoerari dagokionez. Adierazitakoaren arabera, ondoriozta dezakegu espediente honek ez duela behar genero-inpaktuari buruzko txostenik, onestitako Jarraibideetan txostena prestatzeko eta onesteko jasotzen den prozeduraren arabera.

8.2. Euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez duen inpaktuaren ebaluazioa

Euskadiko tokiko erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 50.1 artikuluan ezartzen denari jarraiki, Plan Berezi honen barruan hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko da, euskararen erabileran eragina izan dezakeela uste bada.

Aipatutako Dekretuaren 53. artikuluan ezartzen da udal zerbitzu teknikoek aztertuko dituztela Plan Berezi honetatik eratorritako aurreikus daitezkeen eraginak, eta udal-zerbitzu teknikoek hizkuntza-azterlanaren irismenari buruzko txostena bidaliko diote plan edo proiektuari funtsezko onespina emateko eskumena duen udal organoari; txosten horrek ondoriozta dezake a) proposamenak ez duela hizkuntza-inpaktu esanguratsurik eragin eta, beraz, hizkuntza-inpaktuaren azterlanik ez egitea proposatuko du, edo b) hizkuntza-inpaktu esanguratsua eragiten duela eta, kasu horretan, beharrezkoa izango da hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.

Udal zerbitzu teknikoek egin litzaketen oharpenak gorabehera, Plan Berezi hau idatzi duen lantaldeak lehen analisi bat egin du, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak horretarako diseinatutako tresnan oinarrituta.

Hobetsi da plan horrek ez diola eragiten udalerriko biztanle kopuruari, ezta bisitari kopuruari ere, eta ez duela eragin nabarmenik izango udalerraren egoera soziolinguistikoan. Ereduaren emaitza da ez dela beharrezkoa inpaktu linguistikoaren azterketa egitea.

8.3. Herritarrek parte hartzeko programa

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko EAeko 2/2006 Legearen 8. artikulua herritarren parte-hartzearen printzipioa ezartzen du, hirigintzako antolamendura heda daitekeena, oro har. Gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Legeak, 31. 3 artikuluan, ezartzen du Herri Administrazioek kontuan izango dutela genero-ikuspegia hiriaren diseinuan, hiri-politikan, eta hirigintzako plangintza definitzerakoan eta egikaritzekoan eta, horretarako, herritarren parte-hartzea eta gardentasuna sustatu eta bultzatuko dituzten mekanismoak eta tresnak erabiliko dituztela, batez ere.

2/2006 Legearen 84.4 artikuluan ezartzen da dagokion hirigintzako plana edo tresna formulatzeko akordioan edo, hala badagokio, eskudun administrazioaren aurrean tramitaziorako aurkeztutakoa onesteko tramitean, hura prestatzeko, tramitatzeko eta onesteko prozesuan administrazioen arteko koordinazioa eta herritarrek parte hartzeko programa sustatzeko beharrezko neurriak eta jarduketak zehaztuko direla.

2/2006 Legearen 108. artikulua ezartzen du herritarrek plangintza orokorrean parte hartzeko programa. Herritarrek plangintza xehatuan parte hartzeari buruz egiten den aipamen bakarra 68. artikuluan aurkituko dugu, non ezartzen den plan partzialek herritarren parte-hartze modura formulatutako alegazio, iradokizun eta erreklamazioen analisia jaso beharko dutela informazio- eta justifikazio-memoriaren barruan:

Aipatutako artikulua programa hori “udalerraren ezaugarrien arabera” eratu behar dela ezartzen duen arren, zentzuak pentsarazten digu programa “agiriaren ezaugarrietara” ere egokitu behar dela, haren helburuak eta irismena kontuan hartuta. Ildo horretan, nabarmendu behar da mugatua dela agiri honen irismena, eta haren zehaztapenek transformazioa azpiestazio elektrikoaren (Elgoibarko TA) barnealdeari bakarrik eragiten diola, eta horren lurraldeko eragina ia ezdeusa da.

Agiria interesa duen edozein pertsonak ulertzeko modukoa izan dadin, Plan Bereziaren Laburpen Exekutibo ez-teknikoa jasotzen da, ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 32. artikuluan jasotakoari jarraiki.

Bestalde, Plan Berezi honek Ingurumen-ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozedura betetzeak agiriaren edukien hedapena eta agiriok ingurumenaren arloko organoaren webgunearen bitartez eskuratu ahal izatea bermatzen du.

Agiriaren irismena eta garrantzia mugatua dela kontuan izanda, ez da beharrezkotzat jotzen edukiak azaltzeko jendaurreko berariazko saiok egitea, nahiz eta erabaki hori Elgoibarko Udalaren esku dagoen. Ez da beharrezkotzat jotzen, bestalde, indarrean dagoen hirigintzako legeriak gutxienezkotzat ezartzen duen jendaurrean jartzeko epea luzatzea ere.



I. ERANSKINA: INTERES PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOA

I. ERANSKINA: INTERES PUBLIKOAREN JUSTIFIKAZIOA

Dokumentu honen xedea ez da interes publikoaren kontzeptua definitzea edo mugatzea. Eztabaidagarria da, zalantzarik gabe, eta doktrina juridikoan duen kontzeptu-zabaltasuna denboran aldatzen da. Adierazi behar da, hala ere, onura publikoa, gizarte-interesa edo gizarte-premia bezalako kontzeptu baliokideek, egiturazko jarduera jakin batzuk garatzeko eta gauzatzeko testuinguruan zentratuta, interes orokorraren edo herritarren (eremu publikoa) lehentasuna dakartela jabetza pribatuaren (eremu pertsonala) esparruko eskubideen gainetik.

Kontzeptu juridiko zehaztugabe horrek, instalazio elektrikoetarako dagokienez, dagokion legezko gaikuntza jasotzen du Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen bidez, 54. artikuluan honako hau ezartzen duenean: **energia elektrikoa sortu, garraiatu eta banatzeko instalazio elektrikoak onura publikokoak direla deklaratu da**, instalazio horiek ezartzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko, bai eta zortasun hori ezarri eta egikaritzeko beharrezkoak diren okupazio-deklarazioak egiteko ere.

Beraz, Legearen ondorioz, sorkuntza-, garraio- edo banaketa-instalazio elektriko baten sustatzaileak eta jabeak gaikuntza-elementu bat dauka, legezko izapideen bidez, Konstituzioak babestutako jabetza eta eskubide pribatuaren gaineko ahalmenak eskuratzeko (jabetza osoa desjabetzea, zortasunak ezartzea eta okupazioak), instalazio elektrikoak eraiki, kontserbatu eta mantentzeko.

Horretarako, kontuan izan behar da Elgoibar TA 1958tik martxan dagoen instalazio aktiboa dela eta indarrean dauden administrazio-baimen guztiak dituela. Instalazioak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak 2016ko ekainaren 24an erregularizazio bidez zerbitzuan jarri izanaren akta du. Bestalde, energia elektrikoa ingurunean banatzeko sarearen funtsezko pieza da, Elgoibarko HAPOn jasotzen den bezala, eta HAPOn Hirigintza Arau Orokorren 89.3 artikuluan adierazten denaren arabera finkatuta geratzen da.

Testuinguru horretan, interpretatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4.2 eta 4.3 artikuluek egindako eskakizunak, landa-ingurunean ekipamenduak eta jarduerak ezartzeko interes publikoko deklarazioaren beharri buruzkoak, lurzoru urbanizaezinaren babesleak direla, landa-jarduera ez-aktiboetarako zuzenean lotuta dauden eta lehendik dauden jarduera ez-aktiboetarako mugatzeko.

2022eko uztaila

Idazketa-taldea



Marco Segurola
Geografo hirigilea



Ane Miren Martínez
Arkitektoa





Garapeneko Hirigintza-
araudia

ELGOIBARKO AZPIESTAZIOAREN

Plan Berezia

aurkibidea

LEHEN TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK	1
Art 1. Xedea eta aplikazio-eremua	1
Art 2. Indarrean sartzea eta indarraldiaren baldintzak	1
Art 3. Plan Berezia osatzen duten agiriak eta haien arauzko irismena	1
BIGARREN TITULUA: HIRIGINTZA-ARAUBIDEA	3
Art 4. Kalifikazio-araubide aplikagarriaren definizioa	3
Art 5. Plan Berezia egikaritzeko araubidea	3
Art 6. Antolamenduz kanpoko eraikin eta instalazioak	3
Art 7. Partzelatzea	3
Art 8. Xehetasun-azterlana	3
HIRUGARREN TITULUA: ERABILERA ETA ERAIKUNTZAKO ARAU OROKORRAK	4
Kap 1 Erabilerari dagozkion baldintzak	4
Art 9. Erabilerak	4
Art 10. Interes publikokotzat deklaratzeko baldintzak	4
Kap 2 Eraikuntzaren baldintzak	4
Art 11. Zer jotzen da eraikuntzat?	4
Art 12. Eraikigarritasuna	4
Art 13. Eraikuntzaren formaren definizioa	5
Art 14. Eraikuntza-profila	5
Art 15. Eraikuntzaren altuera	5
Art 16. Eraikuntza-tipologia eta materialak	5
Kap 3 Instalazioen baldintzak	5
Art 17. Zer jotzen da instalaziotzat?	5
Art 18. Ezartzeko baldintzak	6
Kap 4 Urbanizazioaren baldintzak	6
Art 19. Sarbideari dagozkion baldintzak	6
Art 20. Lursailaren barne-urbanizazioa	6
Art 21. Aparkalekua	6
Art 22. Lursailaren itxitura	6
LAUGARREN TITULUA: HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINEZARRITAKO BALDINTZATZAILEAK	7
Art 23. Zortasun aeronautikoak	7
Art 24. Ingurumenean eragin daitezkeen efektu negatiboak zuzentzeko, babesteko eta konpentsatzeko neurriak	7
Art 25. Ingurumena zaintzea	7

LEHEN TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

Art 1. Xedea eta aplikazio-eremua

Hirigintzako arau hauen xedea da Elgoibarko transformazioko azpiestazio elektrikoari (Elgoibarko TA) dagokion eta Elgoibarko (Gipuzkoa) lurzoru urbanizaezina den eremuaren barruan dauden lursailen eta eraikuntzen erabilera arautzea, eta arauok eraenduko dute eremu osoan, behin betikoz onesten direnetik.

Art 2. Indarrean sartzea eta indarraldiaren baldintzak

- 1.- Plan Berezi hau behin betiko onespeneraren erabakia argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta planaren zehaztapenak, osorik edo partzialki, legez ezarritako eskakizunekin aldatzen diren arte edo zehaztapenok, hala ezartzen duen goragoko mailako plangintza-tresna bat onestearen ondorioz, erabat indargabetzen diren arte eraenduko du.
- 2.- Plan Bereziaren agiriko zehaztapenetakoren bat baliogabetzeak, indargabetzeak edo aldatzeak ez du eraginik izango gainerakoen baliozkotasunean, baldin eta horietakoren bat ez bada aplikaezina haiekiko harremana edo mendekotasuna izateagatik.

Art 3. Plan Berezia osatzen duten agiriak eta haien arauzko irismena

1.- Plan Berezia osatzen duten agiriak

Ondorengo agiriek osatzen dute Plan Berezi hau:

- A AGIRIA.MEMORIA
- B AGIRIA.HIRIGINTZAKO ARAUAK
- C AGIRIA.EGIKARITZEAREN ANTOLAMENDUKO ETA KUDEAKETAKO GIDALERROAK
- D AGIRIA.BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN AZTERLANA
- E AGIRIA.LABURPEN EXEKUTIBOA
- F AGIRIA.PLANOAK

2.- Agirien izaera arautzailea:

Proiektuaren eduki arautzailea artikuluko honen 1. epigrafean adierazitako agiri-sortak definitzen duen arren, "B. Hirigintzako Arauak" eta "F. Planoak" dira berariazko izaera arautzailea dutenak, eta hirigintzako esku-hartzea arautzen dutenak eta, beraz, agiri horiek ezartzen dituzten zehaztapenak bete beharko ditu nahitaez esku-hartze horrek.

Gainerakoak adierazpen-, erreferentzia- edo justifikazio-agiriak dira, beraz, horien eta aurrez aipatutakoen edukien artean kontraesanik egongo balitz, bigarrenak gailenduko lirateke.

Hirigintzako arau hauetan jasotzen ez diren kasu orokorretan, Elgoibarko HAPOn araudi orokorrak eraenduko du.

3.- Agirien arteko kontraesanak:

Eskala ezberdinetan egindako izaera arautzaileko planoen artean, hirigintzako zehaztapenen bati dagokionez,

bat ez datozen zehaztapenak daudela ikusiko balitz, eskala xehatuagoan egindako planoetan ezartzen dena gailenduko litzateke, kontraesana azken horietan ageriko akats materialen bat egin izanaren ondorio ez bada, behintzat.

Hirigintzako arauetan, euskarazko eta gazteleraazko testuen artean kontraesanik egongo balitz, jatorriz idatzitako gazteleraazko testuan jasotakoa gailenduko da, euskararako itzulpenaren aurrean.

BIGARREN TITULUA: HIRIGINTZA-ARAUBIDEA

Art 4. Kalifikazio-araubide aplikagarriaren definizioa

Plan Berezi honen eremua Elgoibarko HAPOk ezartzen duen “Nekazaritza eta Abeltzaintzakoa eta Landazabalekoa: Nekazaritza-erabilera Estrategikoa” lurzoru-kategoriara xedatzen da, EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren “Nekazaritza eta Abeltzaintzakoa. Balio estrategiko handia” deritzon kategoriari dagokiona. Elgoibarko HAPOren eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arauzko zehaztapenak aplikatuko zaizkio, Plan Berezi honen eremua Elgoibarko HAPOk finkatuta dagoela –energia elektrikoa banatzeko sarearen elementu gisa– eta 1958az geroztik martxan dagoen instalazio bat dela eta administrazio-baimen guztiak dituela kontuan hartuta, horri guztiari dagozkion salbuespenekin.

Art 5. Plan Berezia egikaritzeko araubidea

Plan Bereziak mugarriztatzen duen eremuan proiektatutako antolamenduaren garapena egikaritzea zuzenekoa izango da; aldez aurretik, baina, dagozkion obra-lizentziak eskuratu beharko dira.

Art 6. Antolamenduz kanpoko eraikin eta instalazioak

- 1.- Antolamenduz kanpokotzat deklaritzen da Plan Berezi honen zehaztapenekin bat ez datorren edozein eraikuntza, instalazio edo erabilera. PII.03 “Hirigintza-egikaritzako baldintzak” planoak berariaz antolamenduz kanpokotzat deklaratu diren eraikinak eta instalazioak islatzen ditu.
- 2.- Plan Berezi honen ondoreetarako, antolamenduz kanpoko deklaratzek berarekin dakar deklarazio hori jaso duten eraikinak eta instalazioak ordeztzea, instalazioaren jabeak ezartzen dituen epe eta aurreikuspenen barruan.

Art 7. Partzelatzea

- 1.- Debekatuta daude hirigintza-partzelatzeak edo beste edozein partzelatze; bakarrik onartuko dira aplikagarria den legeria orokorrean ezarritako irizpideen arabera egiten diren lursail nagusien bereizteak eta banaketak.
- 2.- Nekazaritza eta Basozaintzako EAEko Lurralde Plan Sektorialaren (177/2014 Dekretua) 11. artikuluan ezartzen denaren arabera, ez da baimenduko laborantzarako gutxieneko unitatea baino azalera txikiagoko lursail edo finka berriak sortzea ekartzen duen eragindako finken bereizketarik, baldin eta ez bada, behintzat, bermatzen lehendik dauden beste nekazaritza-ustiategi batzuetara atxikiko direla.

Art 8. Xehetasun-azterlana

Instalazioaren behar funtzionalengatik, beharrezkoa izango balitz Plan Berezi honetan aurreikusten diren eraikuntzaren lerrokadurak, sestrak edo altuerak aldatzea, Xehetasun-azterketa baten bitartez egingo da, Plan Berezia aldatu beharrik gabe.

HIRUGARREN TITULUA: ERABILERA ETA ERAIKUNTZAKO ARAU OROKORRAK

Kap 1 Erabilerari dagozkion baldintzak

Art 9. Erabilerak

- 1.- Erabilera nagusia: Instalación de distribución de energía eléctrica.
- 2.- Erabilera bateragarriak:
 - Energia elektrikoa banatzeko eta transformatzeko instalazioak.
 - Instalazioaren kudeaketarekin eta mantenuarekin lotutako erabilerak.
 - Eremuaren barruko espazio libreak, aparkalekua eta berdeguneak.
- 3.- Debekatutako Erabilerak: aurreko kategorietan sartzen ez direnak eta, bereziki, bizitegi-erabilera.

Art 10. Interes publikokotzat deklaratzea

Instalazio honen interes publikoa Sektore Elektriokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak ezartzen du, 54. artikuluan: energia elektrikoa sortu, garraiatu eta banatzeko instalazio elektrikoak onura publikokotzat jotzen dira, horiek ezartzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko.

Elgoibar TA 1958tik martxan dagoen instalazio aktiboa da, eta indarrean dauden administrazio-baimen guztiak ditu. Instalazioak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak 2016ko ekainaren 24an erregularizazio bidez zerbitzuan jarri izanaren akta du. Bestalde, energia elektrikoa ingurunean banatzeko sarearen funtsezko pieza da, Elgoibarko HAPOn jasotzen den bezala, eta HAPOn Hirigintza Arau Orokorren 89.3 artikuluan adierazten denaren arabera finkatuta geratzen da.

Kap 2 Eraikuntzaren baldintzak

Art 11. Zer jotzen da eraikuntzatat?

Plan Berezi honen ondoreetarako, eraikuntzatat joko da zolata, fatxadak eta estalkia, eta aurpegi guztiak itxita dituen eta, eraikuntzari dagokionez, barnean dituen elementuetatik independentea den edozein eraikuntza.

Art 12. Eraikigarritasuna

- 1.- Sestra gaineko 1.178 m²(t)-ko gehienezko eraikigarritasuna ezartzen da.
- 2.- Elgoibarko HAPOn hirigintzako arau orokorren 20. Artikuluan jasotzen direnak dira eraikigarritasuna zenbatzeko irizpideak.

Art 13. Eraikuntzaren formaren definizioa

- 1.- Eraikuntzak bat etorri beharko dira PII.01 "Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak" deritzon planoan ezartzen diren eraikuntzaren gehienezko lerrokadurekin.
- 2.- Lursail pribatua okupatzen duten eraikuntzen lursail urbanizatuko sestrak eta sostengu-mailak izango dira antolamendu-planoetan ezarritako erreferentzia-mailetatik abiatuta, urbanizazio osagarriko obra-proiektuan ezartzen direnak.
- 3.- Lerrokadura horiek definitzen dute eraikuntzaren gehienezko inguratzailea, ezarri diren eraikuntzaren altuera- eta profil-baldintzekin batera. Azalera eraikigarriaren gehienezko mugak ere errespetatu beharko ditu, baina.

Art 14. Eraikuntza-profila

Beheko Solairuko (BS) gehienezko profila ezartzen da.

Art 15. Eraikuntzaren altuera

- 1.- 12 metroko gehienezko altuera ezartzen da.
- 2.- Eraikuntzaren altuera neurtzeko, fatxadaren azaleraren erdiko puntuak urbanizatutako lursailarekin bat egiten duen puntua hartuko da beheko erreferentziatzat eta, goiko erreferentzia gisa, berriz (eraikuntzak hegali ez badu) fatxadaren azaleraren puntu altuenaren maila, edo hau estalkiaren planoarekin gurutzatzen den gunea, Elgoibarko HAPOren Hirigintzako Arau Orokorren 37. artikuluan ezartzen den moduan.

Art 16. Eraikuntza-tipologia eta materialak

- 1.- Eraikuntza-tipologia eta materialak bat etorri beharko dira azpiestazio elektrikoaren instalazioak hartzera bideratuta egongo den aurreikusitako eraikuntzaren ezaugarriekin.
- 2.- Eraikin aurrefabrikatuak lehenetsiko dira. Hainbat material onartzen da fatxadarako eta estalkirako, hala nola hormigoia, adreilua, metalezko panelak, egurra, etab.
- 3.- Ahal dela, lauak izango dira estalkiak, malda pixka batekin edo bi uretara.

Kap 3 Instalazioen baldintzak

Art 17. Zer jotzen da instalaziotzat?

Plan Berezi honen ondoretarako, instalaziotzat joko da eremuko erabilera nagusiei eta bateragarriei lotutako edozein elementu eraiki mota, eraikuntzat jotzen ez bada: linea elektrikoetarako dorreak, potentzia-transformadoreak eta zerbitzu osagarrienak, kondentsadoreen bateriak, etab.

Art 18. Ezartzeko baldintzak

- 1.- Eraikuntza berriko instalazioak PII.01 "Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak" planoan jasotzen diren instalazioaren gehieneko lerrokaduren barruan garatu beharko dira.
- 2.- Ez da ezartzen instalazioen altueretarako mugarik; azpiestazioaren berezko eskakizun operatibo eta funtzionalen arabera izango dira.

Kap 4 Urbanizazioaren baldintzak

Art 19. Sarbideari dagozkion baldintzak

Bide-sare publikotik sarbide bakarra izango du azpiestazioak; horretarako, gaur egungo sarbidea finkatuko da.

Art 20. Lursailaren barne-urbanizazioa

- 1.- Urbanizazioko obra osagarrien proiektu bidez jasoko da lursailaren barne-urbanizazioaren aldaketa, eta eraikuntza-proiektuen eranskin gisa jaso ahal izango da edo proiektu independentea izan daiteke.
- 2.- Jabetza partikularreko espazioak nahitaez mantendu beharko dira apaintasun- eta osasungarritasun-baldintza egokietan, eta hartzen dituzten erabileretara egokitutako urbanizazioa izan beharko dute (zoadura, euri-uren bilketa, etab.).

Art 21. Aparkalekua

Lursail pribatuaren barruan aparkaleku bat bermatuko da, kudeaketa- eta mantenu-lanen kasuetarako aparkatzeko aukera bermatze aldera.

Art 22. Lursailaren itxitura

- 1.- Azpiestazioa perimetro osoan hesituta dago eta hala egongo da, segurtasun-arrazoia direla eta. Metalez hesi edo alanbrezko sare bidezko itxitura sinpleak baimentzen dira, osagarri gisa landareak dituztela edo ez. Itxitura ezartzen den lurzorua sestraren gainean horizontalean neurtutako 2,5 metroko gehieneko altuera ezartzen da.
- 2.- Nolanahi ere, beti bete beharko dira indarrean dagoen legeriak goi-tentsioko instalazio elektrikoetarako ezartzen dituen itxitura-altueren gutxieneko irizpideak.

LAUGARREN TITULUA: HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINEZARRITAKO BALDINTZATZAI-LEAK

Art 23. Zortasun aeronautikoak

Plan Berezi honetan jasotzen diren eraikuntzek, instalazioek eta beste edozein jarduketak, elementu edo instalazio guztiak barne (hala bola, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuko ekipoak, igogailu-kutxak, kartelak, erremate apaingarriak, eta eraikuntza horien gaineko beste edozein eranskin), zein horiek eraikitze beharrezko bitarteko mekanikoen (garabiak, etab.), lurzoruaren aldaketek edo objektu finkoen (zutabeak, antenak, aire-sorgailuak, palak, kartelak, etab. barne), bide-galiboak edo trenbide-galiboak ezingo dute gainditu Bilboko Aireportuaren Aeronautikako Zortasunetik abiatuta definitutako azalera.

Art 24. Ingurumenean eragin daitezkeen efektu negatiboak zuzentzeko, babesteko eta konpentsatzeko neurriak

Plan Berezia egikaritzeko prozesuan, Ingurumen-azterketa Estrategikoan eta Ingurumen-txosten Estrategikoan jasota dauden babeserako neurriak eta neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileak hartuko dira, ingurumenean eragin daitezkeen efektu negatiboak murrizteko.

Art 25. Ingurumena zaintzea

Plan berezia egikaritzeko prozesuan, Ingurumen-azterketa Estrategikoan eta Ingurumen-txosten Estrategikoan ezartzen diren ingurumena zaintzeko irizpideei jarraituko zaie.

2022eko uztaila

Idazketa-taldea



Marco Seguro
Geografo hirigilea



Ane Miren Martínez
Arkitektoa





Egikaritzearen
antolamenduko eta
kudeaketako gidalerroak

ELGOIBARKO AZPIESTAZIOAREN

Plan Berezia



aurkibidea

1.	JARDUKETA MOTA.....	1
2.	JARDUTEKO ARAUBIDEA	1
3.	HIRIGINTZA-EGIKARITZARAKO EPEAK	1

1. JARDUKETA MOTA

Plan Berezi honen jardun-eremua lurzoru urbanizaezina da, eta Jarduketa Isolatutzat hartzen da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 136. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Beraz, jarduketa zuzeneko araubidea da, hirigintza-egikaritzako beste tresnarik behar ez duena, dagozkion obra-lizentziak eskuratzea salbu.

Aurreikusitako eraikuntzak eta instalazioak egikaritzeko, beharrezkoa izango da, aurrez edo aldi berean, lursail pribatuaren barruan urbanizazio-obra osagarriak egitea. Eraikuntzei eta/edo instalazioei lotuta ez dauden urbanizazio-obra osagarriak ere egin ahal izango dira.

2. JARDUTEKO ARAUBIDEA

Jarduketa pribatuko araubidearen arabera garatuko dira Plan Berezi honen aurreikuspenak.

3. HIRIGINTZA-EGIKARITZARAKO EPEAK

Hirigintza-egikaritzako prozesuan ez dago eraikuntza-obretatik, instalazioak ezartzeko obretatik eta urbanizazio-obra osagarrietatik haratagoko beste urratsik.

Urbanizazio publikorik ez dagoenez, ez da aplikagarria 2/2006 Legearen 189.2 artikulua, eraikuntza-lanak urbanizazio-lanak amaitu eta gehienez urtebeteko epearen barruan hasi behar direla ezartzen duena.

Ez da ezartzen eraikuntza-obrak hasteko eperik. Faseka egikarituko dira eraikuntzako, instalazioko eta barne-urbanizazioko lanak, azpiestazioaren errekerimendu operatibo eta funtzionalen arabera.

2022eko uztaila

Idazketa-taldea



Marco Seguro
Geografo hirigilea



Ane Miren Martínez
Arkitektoa



Bideragarritasun ekonomiko
eta finantzarioaren azterketa

ELGOIBARKO AZPIESTAZIOAREN

Plan Berezia



aurkibidea

1.	JARDUKETAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA	1
2.	JASANGARRITASUN EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA	1

1. JARDUKETAREN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA

Hirigintza-plangintzako bideragarritasun ekonomikoaren analisiaren xedea da beharrezko zerbitzuak ezartzeko eta urbanizazio publikoko beharrezko obrak egikaritzeko –eta gero Administrazioari emateko– lehenengo ebaluazio ekonomiko bat egitea eta haren hirigintza-garapenaren bideragarritasuna justifikatzea.

Kasu honetan, lurzoru urbanizaezineko jarduketa isolatua da, erabat lurzoru pribatuan egingo dena, eta ez da aurreikusten Administrazioari lurzoru-lagapenik egitea. Horrela, bada, ez dago urbanizazio publikorik egin beharrik.

Kontuan izanda aurreikusita dauden jarduketa guztiak eraikuntzara, instalazioetara eta lursailaren urbanizazio osagarrira mugatzen direla –horiek guztiak espazio pribatuan–, ez da urbanizazio publikoaren kostuen zenbatespen ekonomikorik jasotzen, ezta kostuen eragina ere, era honetako analisien xede nagusi direnak.

2. JASANGARRITASUN EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 22.4 artikulua ezartzen du hirigintza-erlaketako jarduketan antolamendu-tresnen dokumentazioaren barruan jasangarritasun ekonomikoari buruzko txostena edo memoria sartu beharko dela, eta txosten horretan aztertuko dela jarduketak beharrezko azpiegituren ezarpenak eta mantenuak edo ondoriozko zerbitzuak abian jartzeak edo eskaintzeak eragindako Herri Ogasunetan izango duen inpaktua, bai eta ekoizpen-erabileretara bideratutako lurren nahikotasuna eta egokitasuna ere. Antzerakoa xedatzen du 2/2006 Legea garatzen duen presazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31.1.f) artikulua.

Kasu honetan, ez gaude hirigintza-erlaketaren baten aurrean, urbanizazio publikorik eskatzen ez duen lurzoru urbanizaezineko jarduketa isolatu bat baita.

Jarduketak Toki Ogasunean duen inpaktua garbiki positiboa da. Alde batetik, ez dago Administrazioaren konturako mantenu-kosturik, ez baita azpiegitura publiko berririk sortzen; beraz, jabe pribatuak hartu beharko ditu bere gain eremuaren mantenu-kostu guztiak. Bestalde, operazio horrek zuzeneko diru-sarrerak sortzen ditu Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko Zergaren (EIOZ), Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) bitartez, besteak beste.



2022eko uztaila

Idazketa-taldea

A handwritten signature in blue ink, appearing to read "Marco Segurola".

Marco Segurola
Geografo hirigilea



A handwritten signature in blue ink, appearing to read "Ane Miren Martínez".

Ane Miren Martínez
Arkitektoa



Laburpen exekutiboa

ELGOIBARKO AZPIESTAZIOAREN

Plan Berezia



aurkibidea

1.	SARRERA.....	1
2.	PLAN BEREZIAREN EREMUA ETA XEDEA.....	1
3.	PROPOSATZEN DEN ANTOLAMENDUA	1

1. SARRERA

Atal honen xedea da Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 25.3 artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten Premiazko Neurrien ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 32. artikulua –jendaurrean jartzeko izapiderako gutxieneko dokumentazioari buruzkoa– betetzea.

Agiria errazago ulertzea eta herritarren parte-hartzea bultzatzera bideratutako laburpen ez-teknikoa da. Ez da identifikatu generoarekin lotutako gairik, gizon eta emakumeen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Legearen 31.3 artikuluan ezarritako helburuak lortzeko berariazko mekanismoak eta tresnak ezarri beharra eskatzen duenik.

2. PLAN BEREZIAREN EREMUA ETA XEDEA

Plan Berezi honen jardun-eremua Elgoibarko azpiestazio elektrikoa (Elgoibarko TA) da. Azkue auzoan dago (San Roke), San Bizente-San Roke ermitaren inguruan, Elgoibarko hirigunearen hegoaldean. 7.790 metro koadroko azalera du, eta hauexek dira lursailaren mugak:

- Iparraldean eta mendebaldean, Azkue auzorako (San Roke) bide publikoa (GI-3322).
- Hegoaldean eta ekialdean, nekazaritza-lursailak.

Plan Berezi honen xedea da Elgoibarko transformazioko azpiestazio elektrikoaren (Elgoibarko TA) eremuaren antolamendu xehatua egitea, instalazioak eraberritzea eta haren gaitasuna handitzea ahalbideratzeko; plan berezi hau izango da eremu horretako etorkizuneko jarduketan hirigintzako oinarria.

Epe labur eta ertainerako aurreikusitako jarduketak ahalbideratzeaz gain, gaur egun aurreikusita ez dauden etorkizuneko beharrei erantzutea ahalbideratuko duen antolamendu bat eman nahi zaio eremuari.

I-DE Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U. Iberdrola Taldearen elektrizitate-banaketarako sozietateak sustatu du Plan Berezi hau; sozietate hori arduratzen da Taldearen energia elektrikoa banatzeko sareak mantentzeaz eta kudeatzeaz.

3. PROPOSATZEN DEN ANTOLAMENDUA

Plan Bereziaren irizpideak eta helburuak

Plan Berezi honen xedea da Elgoibarko transformazioko azpiestazio elektrikoaren (Elgoibarko TA) eremuaren antolamendu xehatua egitea, instalazioak eraberritzea eta haren gaitasuna handitzea ahalbideratzeko; plan berezi hau izango da eremu horretako etorkizuneko jarduketan hirigintzako oinarria. Epe labur eta ertainerako aurreikusitako jarduketak ahalbideratzeaz gain, gaur egun aurreikusita ez dauden etorkizuneko beharrei erantzutea ahalbideratuko duen antolamendu bat eman nahi zaio eremuari.

Elgoibarko TA birmoldatuko da haren gaitasuna areagotzeko beharra dagoelako, handitu egin baita inguruko elektrizitate-eskaria. Zonako eskari elektrikoa handitu egin denez, beharrezkoa da instalazioa elikatuko duten 132 kV-ko linea berriak eraikitzea. Elikadura gehigarri hori dela eta, beharrezkoa da instalazioaren 132 kV-ko sistemaren gaitasuna areagotzea. Aldi berean, beste esku-hartze batzuk ere behar dira jarduketa horretarako; gauzak horrela, ezinbestekoa da azpiestazioa sakon birmoldatzea.

Epe labur eta ertainerako aurreikusten diren jarduketak

Lehenengo fasean, 132 kV-ko sistema trinkotuko da, 132 kV-ko linea berrien etorrerarekin lotuta. 132 kV-ko beste dorre bat ezarriko da, 45 metro inguruko altuerakoa. Linea horren eraikuntza ez dago Plan Berezi honen esku, baizik eta dagokion legeria sektorialari dagokio.

Horretarako, 132 kV GIS Eraikina deritzon eraikin bat altxatuko da, hormigoizko edo metalezko aurrefabrikatutako eraikin panelagarria. Eraikin hori gaur egun etxebizitzaren eraikina dagoen lekuan kokatuko da, baina aztarna handitu egingo da pixka bat egungo eraikuntzarekiko. Eraikinak 9,2 metroko zabalera, 33 metroko luzera eta 8 metroko altuera ditu. PII.04 "Eraikuntzaren ezaugarriak" deritzon planoak grafikoki islatzen ditu eraikin horren ezaugarriak. 132 kV GIS Eraikina eraiki ondoren, aire zabalean dagoen 132 kV-ko sistema osoa kentzeari ekingo zaio. Osagarri modura, eremuaren barne-urbanizazioa osatzea planteatzen da, barneko bidea hego-mendebalderantz luzatuta.

Bigarren fase batean, aire zabalean dagoen 30 kV-ko sistema trinkotuko da. Horretarako, eraitsi egingo da gaur egungo biltegia, eta aurrefabrikatutako bi etxola eraikiko dira, 4,2 metroko zabalera, 11,2 metroko luzera eta 4 metroko altuera izango dutenak, eta han jarriko dira instalazio berriaren gelaxkak. Etxola horiek eraiki ondoren, kendu egingo da aire zabalean dagoen 30 kV-ko sistema osoa. Aurrez aipatutako PII.04 planoan ere jasota daude eraikin horien ezaugarriak.

Esku-hartze biak egikarituta, espazio handia libratuko da Elgoibarko TAre barrualdean. Gaur egun ez dago zona horretan jarduteko aurreikuspen zehatzik, nahiz eta Plan Berezi honek etorkizunean Elgoibarko TAre gaitasuna handitu ahal izateko hainbat erabaki hartzen duen.

Antolamendurako irizpideak

Eraikuntzaren gehieneko lerrokadurak ezartzen dira, eraikuntza berriak jarri ahal izango diren gehieneko inguratzailea definitzen dituztenak. GI-3322 errepedieranzko aurpegian, egungo etxebizitza-eraikinaren lerrokadurari eusten zaio, errepedeen foru organoarekin hitzartutakoari jarraiki. Gainerakoan, lehendik dauden lerrokadurarekin bat datoz, hein handi batean, gehieneko lerrokadurak. Lerrokadura horietan antolatuko dira epe labur eta ertainean egikaritzea aurreikusten diren eraikuntzak.


Aire zabalean dagoen 30 kV-ko sistema trinkotuta libratuko den zona erreserba-espazio bat da, etorkizunean gaitasuna handitzeko edo aurrerago sor litezkeen beste behar batzuei erantzuteko eraikin edo instalazio berriak eraikitzea ahalbidera lezakeena.

Instalazioetarako eraikuntzarakoak ez diren beste gehieneko lerrokadura batzuk ezartzen dira, eta horietara egokitu beharko dira etorkizunean eraiki litezkeen instalazioak. Lerrokadura oso generikoak dira, jarduteko marjina handia uzten dutenak, kontuan hartuta lursailaren beraren izaera transformazio elektrikoko instalazio batena dela eta lursailaren barne-konfigurazioa nabarmen alda litekeela etorkizunean.

Eraikigarritasuna

Eremuan aurreikusten diren eraikigarritasuna epe labur eta ertainerako aurreikusten diren jarduketan araberakoa da; horri gehitu behar zaio gaur egun aurreikusita dauden instalazioak bikoiztea ahalbideratuko duen erreserba-gaitasuna. Honako hau izango litzateke eraikigarritasunaren banakatzeari:

<i>Eraikina</i>	<i>Azalera (m²t)</i>	<i>Altuera (m.)</i>
Kontrolerako eraikuntza	180	4,5
GIS Eraikina (132 kV-ko sistemaren trinkotzea)	303	8,0
Gelaxkak (30 kV-ko sistemaren trinkotzea)	95	4,0
Erreserba	578	4,5
GUZTIRA	1.156	



Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak

2022eko uztaila

Idazketa-taldea

Marco Seguro
 Geografo hirigilea



Ane Miren Martínez
 Arkitektoa



Planoak

ELGOIBARKO AZPIESTAZIOAREN

Plan Berezia



PLANOEN AURKIBIDEA

I. informazio-planoak

- PI.01 Kokalekua
- PI.02 Mugapena. Egungo egoera
- PI.03 Elgoibarko HAPO. Energia Elektrikoa Banatzeko Sarea
- PI.04 Elgoibarko HAPO. Lurzoru urbanizaezina
- PI.05 Elgoibarko HAPO. Hiri-lurzoruarekiko eta lurzoru urbanizagarriarekiko erlazioa

II. antolamenduko planoak

- PII.01. Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak.
- PII.02. Antolamendu orokorra. Sekzioak
- PII.03. Hirigintza-egikaritzako baldintzak
- PII.04. Eraikuntzaren ezaugarriak



proiektua
proyeto

SUBESTACIÓN ELGOIBAR
ELGOIBARKO AZPIESTAZIOA

PLAN BEREZIA

PLAN ESPECIAL

fasea
fase

BEHIN-BETIKO ONESPENA
APROBACIÓN DEFINITIVA

data
fecha

julio 2022 uztaila

kokalekua
situación

ELGOIBAR (GIPUZKOA)



planoa
plano

I. INFORMAZIO PLANOAK
I. PLANOS DE INFORMACIÓN

KOKAPENA

SITUACIÓN

eskala
escala

A3: 1/4.000

PI.01

PI.01 SITUACION.dwg

idazlea
equipo redactor


MARCO SEGIUOLA
Geógrafo Urbanista

Marco Segiuola


ANE MIREN MARTÍNEZ
Arquitecta

Ane Miren Martínez







LEYENDA / LEGENDA	
1	VIVIENDAS / ETXEBIZITZAK
2	EDIFICIO DE CONTROL / KONTROL ERAIKINA
3	ALMACÉN / BILTEGIA
4	SISTEMA 132 kV / 132 kV SISTEMA
5	TRANSFORMACIÓN / TRANSFORMAKUNTZA
6	SISTEMA 30 kV / 30 kV SISTEMA
7	BATERÍA DE CONDENSADORES / KONDENSADOREEN BATERIA
- - -	LÍMITE ÁMBITO / EREMUAREN LÍMITEA




proiektua proiektua	SUBESTACIÓN ELGOIBAR ELGOIBARKO AZPIESTAZIOA
fasea fasea	PLAN BEREZIA PLAN ESPECIAL
data data	BEHIN-BETIKO ONESPENA APROBACIÓN DEFINITIVA
kolokalekua situación	julio 2022 uztaila
sustatzalea promotor	ELGOIBAR (GIPUZKOA)
planoa plano	i+DE Grupo IBERDROLA
eskala escala	I. INFORMAZIO PLANOAK I. PLANOS DE INFORMACIÓN
idazlea autor	DELIMITAZIOA EGUNGO EGOERA
equipo redactor	DELIMITACIÓN ESTADO ACTUAL
	A3: 1/600
	PI.02
	PI.02 DELIMITACIÓN ESTADO ACTUAL.dwg
	MARCO SEGIROLA Geógrafo Urbanista
	ANE MIREN MARTÍNEZ Arquitecta
	KREAN




SUBESTACIÓN DE IBERDROLA
IBERDROLAREN AZPIESTAZIOA



proiektua proyeto	SUBESTACIÓN ELGOIBAR ELGOIBARKO AZPIESTAZIOA
fasea fase	PLAN BEREZIA PLAN ESPECIAL
data fecha	BEHIN-BETIKO ONESPENA APROBACIÓN DEFINITIVA
lugar situation	julio 2022 uztaila
sustatzailea promotor	ELGOIBAR (GIPUZKOA)
planoa plano	i+DE Grupo IBERDROLA
eskala escala	I. INFORMAZIO PLANOAK I. PLANOS DE INFORMACIÓN
idazlea autor	ELGOIBARKO HAPU ELEKTRAIKINAR BANAKETA SAREA
idazlea autor	PGOU ELGOIBAR RED DE DISTRIBUCIÓN DE ENERGIA ELÉCTRICA
idazlea autor	A3: 1/400
idazlea autor	PI.03
idazlea autor	PI.03 PGOU ELGOIBAR.RED ENER ELEC.dwg
idazlea autor	MARCO SEGIUOLA Geógrafo Urbanista
idazlea autor	ANE MIREN MARTÍNEZ Arquitecta
idazlea autor	



LURZORU URBANIZAEZINA		SUELO NO URBANIZABLE
BABES BEREZIKO EREMUAK		ZONAS DE ESPECIAL PROTECCION
BASO EREMUAK		ZONAS DE INTERES FORESTAL
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO ZONA ETA LANDEZABALA		ZONAS USO AGROGANADERO
INGURUMEN HOBEKUNTZARAKO EREMUAK		ZONAS DE MEJORA AMBIENTAL



SUBESTACIÓN ELGOIBAR
 ELGOIBARKO AZPIESTAZIOA
PLAN BEREZIA
PLAN ESPECIAL
 BEHIN-BETIKO ONESPENA
 APROBACIÓN DEFINITIVA
 julio 2022 uztaila
 ELGOIBAR (GIPUZKOA)

I. INFORMAZIO PLANOAK
 I. PLANOS DE INFORMACIÓN

ELGOIBARKO HAPU
 LURZORU EZ URBANIZAGARRIA

PGOU ELGOIBAR
 SUELO NO URBANIZABLE


A3: 1/5.000

PI.04
 PI.04 PGOU ELGOIBAR SULO NO URBANIZABLE.dwg

MARCO SEGUROLA
 Geografo Urbanista
 ANE MIREN MARTINEZ
 Arquitecta


KREAN, S. COOP. · www.krean.com
 FRLE02.03

proiektua / proyecto
 fasea / fase
 data / fecha
 kokalekua / situación
 sustatzailea / promotor
 plana / plano
 eskala / escala
 idazle / autor
 ekipa / equipo



LURZORU URBANOAREN KLASIFIKAZIOA	CLASIFICACIÓN DEL SUELO URBANO
HIRI ZORU SENDOTUA / ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA GEHITU ZANAREN ONDORIOZ SENDOTU GABEKO HIRI ZORUA (PLAN OROKORRA)	SUELO URBANO CONSOLIDADO/ SUELO URBANO NO CONSOLIDADO POR INCREMENTO DE EDIFICABILIDAD PONDERADA (PLAN GENERAL)
GABEZIAGATIK SENDOTU GABEKO HIRI ZORUA / URBANIZAZIO ESKASIA (PLAN OROKORRA)	SUELO URBANO NO CONSOLIDADO POR CARENCIA / INSUFICIENCIA DE URBANIZACION (PLAN GENERAL)
PLANEAMENDU FINKATUAK SAIKATURIKO ESO SUSTATU BEHARREKO PLANEAMENDU BEREZIAK SAILKATU BEHARREKO HIRI ZORUA	SUELO URBANO CATEGORIZADO EN EL PLANEAMIENTO CONSOLIDADO O A CATEGORIZAR EN EL PLANEAMIENTO ESPECIAL A PROMOVER

LURZORU URBANIZAGARRIAREN KLASIFIKAZIOA	CLASIFICACIÓN DEL SUELO URBANIZABLE
LURZORU URBANIZAGARRI EZ SEKTORIZATUA	SUELO URBANIZABLE NO SECTORIZADO



proiektua
 proiektua
 fasea
 fasea
 data
 data
 kokalekua
 kokalekua
 sustatzailea
 sustatzailea
 planoa
 planoa
 eskala
 eskala
 idazlea
 idazlea
 ekipa
 ekipa

SUBESTACIÓN ELGOIBAR
 ELGOIBARKO AZPIESTAZIOA
PLAN BEREZIA
PLAN ESPECIAL
 BEHIN-BETIKO ONESPENA
 APROBACIÓN DEFINITIVA
 julio 2022 uztaila
 ELGOIBAR (GIPUZKOA)


I. INFORMAZIO PLANOAK
 I. PLANOS DE INFORMACIÓN

ELGOIBARKO HAPU
 ZOLU URBANO ETA URBANIZAGARRIEN
 ARTEKO ERLAZIOA


PGOU ELGOIBAR
 RELACIÓN CON SUELO
 URBANO Y URBANIZABLE

A3: 1/2.500
PI.05
 PI.05 PGOU ELGOIBAR.RELACION CON SUELO.dwg
 MARCO SEGIUROLA
 Geografo Urbanista

 ANE MIREN MARTÍNEZ
 Arquitecta



LEYENDA / LEGENDA	
1	EDIFICIO GIS. COMPACTACIÓN SISTEMA 132 KV / GIS ERAIKINA. 132KV KONPAKTATZIO SISTEMA
2	EDIFICIO DE CONTROL / KONTROL ERAIKINA
3	CELDAS COMPACTACIÓN SISTEMA 30 KV / KONPAKTATZIO ZELDAK 30 KV SISTEMA
4	TRANSFORMACIÓN / TRANSFORMAKUNTZA
5	BATERÍA DE CONDENSADORES / KONDENSADOREEN BATERIA
6	ANTENA DE COMUNICACIONES / KOMUNIKATZIO ANTENA
7	NUEVA TORRE DE 132KV / 132KV DORRE BERRIA
8	INSTALACIONES / INSTALAKUNTZAK
9	ESPACIO DE RESERVA / ERRESERBA GUNEA
- - -	LÍMITE ÁMBITO / EREMUAREN LÍMITEA
- - - - -	ALINEACIONES MÁXIMAS DE LA EDIFICACIÓN / ERAIKUNTZEN LERROKADURA MAXIMOAK
— — — — —	ALINEACIÓN EDIFICIO ACTUAL / EGUNGO ERAIKINAREN LERROKADURA
- - - - -	ALINEACIONES MÁXIMAS DE LA INSTALACIÓN / INSTALAKUNTZEN LERROKADURA MAXIMOAK



SUBESTACIÓN ELGOIBAR
 ELGOIBARKO AZPIESTAZIOA
PLAN BEREZIA
PLAN ESPECIAL
 BEHIN-BETIKO ONESPENA
 APROBACIÓN DEFINITIVA
 julio 2022 uztaila
 ELGOIBAR (GIPUZKOA)

i+DE
 Grupo IBERDROLA

I. INFORMAZIO PLANOAK
 I. PLANOS DE INFORMACIÓN

ANTOLAKUNTZA OROKORRA
LERROKADURAK ETA SESTRAK





ORDENACIÓN GENERAL
ALINEACIONES Y RASANTES

A3: 1/600
PII.01
 PII.01 ORDENACION GENERAL ALI Y RAS.dwg

MARCO SEGUROLA
 Geógrafo Urbanista
Marco Seguiola


ANE MIREN MARTÍNEZ
 Arquitecta
Ane Miren Martínez

KREAN






proiektua proyeto	SUBESTACIÓN ELGOIBAR ELGOIBARKO AZPIESTAZIOA
fasea fase	PLAN BEREZIA PLAN ESPECIAL
data fecha	BEHIN-BETIKO ONESPENA APROBACIÓN DEFINITIVA
kolokalekua situación	ELGOIBAR (GIPUZKOA)
sustatzalea promotor	i+DE Grupo IBERDROLA
planoa plano	I. INFORMAZIO PLANOAK I. PLANOS DE INFORMACIÓN
eskala escala	ANTOLAKUNTZA OROKORRA EBAKETAK
idazlea autor	ORDENACIÓN GENERAL SECCIONES
idazlearen equipu redactor	A3: 1/200
	PII.02
	PII.02 ORDENACION GENERAL SECCIONES.dwg
	MARCO SEGIUROLA Geógrafo Urbanista
	ANE MIREN MARTÍNEZ Arquitecta






- EDIFICIOS FUERA DE ORDENACIÓN ANTOLAKUNTZA KANPOKO ERAIKINAK
- INSTALACIONES FUERA DE ORDENACIÓN ANTOLAKUNTZA KANPOKO INSTALAKUNTZAK
- ACTUACIÓN AISLADA EN SUELO NO URBANIZABLE JARDUERA ISOLATUA LURZOLU URBANIZAEZINEAN
- LÍMITE ÁMBITO / EREMUAREN LÍMITEA




proiektua proyeto	SUBESTACIÓN ELGOIBAR ELGOIBARKO AZPIESTAZIOA
	PLAN BEREZIA
	PLAN ESPECIAL
fasea fase	BEHIN-BETIKO ONESPENA APROBACIÓN DEFINITIVA
data fecha	julio 2022 uztaila
kolektorea situación	ELGOIBAR (GIPUZKOA)
sustatzalea promotor	
planoa plano	II. ANTOLAMENDU PLANOAK II. PLANOS DE ORDENACIÓN
	HIRIGINTZA GAUZATZEKO BALDINTZAK
	CONDICIONES DE EJECUCIÓN URBANÍSTICA
eskala escala	A3: 1/600
	PII.03
	<small>PII.03 CONDICIONES DE EJEC. URB. DWG</small>
idazlea equipo redactor	MARCO SEGIROLA Geógrafo Urbanista <i>Marco Segirola</i> ANE MIREN MARTÍNEZ Arquitecta <i>Ane Miren Martínez</i>
	

EDIFICIO GIS. COMPACTACIÓN SISTEMA 132KV / GIS ERAIKINA 132KV KONPAKTAZIO SISTEMA




PLANTA / OINPLANTA
A3: 1/200




SECCIÓN A-A / A-A EBAKETA
A3: 1/200


CELDAS. COMPACTACIÓN SISTEMA 30KV / ZIEGAK. 30KV KONPAKTAZIO SISTEMA




ALZADO / ALTXAERA



PERFIL / PROFILA



PLANTA / OINPLANTA
A3: 1/100



proiektua
proyektu

SUBESTACIÓN ELGOIBAR
ELGOIBARKO AZPIESTAZIOA

PLAN BEREZIA

PLAN ESPECIAL

fasea
fase

BEHIN-BETIKO ONESPENA
APROBACIÓN DEFINITIVA

data
recha

julio 2022 uztaila

kolokalekua
situacion

ELGOIBAR (GIPUZKOA)

sustatzaila
promotor

i+DE
Grupo IBERDROLA

planoa
plano

II. ANTOLAMENDU PLANOAK
II. PLANOS DE ORDENACIÓN

ERAIKUNTZEN EZAUGARRIAK

CARACTERÍSTICAS
DE LA EDIFICACIÓN

eskala
escala

A3: 1/100 y 1/200

PII.04

PII.04 CARACTERÍSTICAS DE LA EDIFICACION.dwg

idazlea
redaktor

MARCO SEGIUOLA
Geógrafo Urbanista

ANE MIREN MARTÍNEZ
Arquitecta

